

# ***Herrixak Hezi***

Soraluzeko hezkuntza proiektua



## AURKIBIDEA

1. Sarrera (3. orrialdea)
2. Lan ildoak (6. orrialdea)
3. Proiektuak (23. orrialdea)
4. Kudeaketa (62. orrialdea)
5. Giza baliabideak: **Koordinatzaile proposamena** (65. orrialdea)
6. Kronograma (67. orrialdea)
7. Aurrekontua (71. orrialdea)
8. Eranskinak (73. orrialdea)



# 1. SARRERA

Dokumentua honek Herriko Hezkuntza Proiektuari dagokion Plan estrategikoa jasotzen du. Prozesuaren lehen fasean egindako Hezkuntza Proiektua oinarri hartuz, herri bezala Soraluzek nahi duen hezkuntza ereduan jasotako printzipio, helburu eta ekintzak betetzeko estrategia zein izango den zehazten duen tresna da Plan Estrategikoa.

Herri Hezitzailea lortzea helburu izanik, planak honako egitura hau aurkezten du. Prozesuan adostutako printzipio bakoitzak lan ildo propioa izango du eta lan ildo horiek garatzeko tresna proiektuak dira. Modu honetan, proiektuak Planaren ardatz nagusi bihurtuko dira. Estrategia beraz, hainbat proiektutan oinarritzen da, 9 proiektutan hain zuzen ere. Proiektuak aukeratzeko orduan, hainbat irizpide izan dira kontutan:

- Herriko beste proiektu eta talde batzuekin batera elkarrekintzan eta norabide berdinean aritzeko aukera gehien eskaintzen duten proiektuak.
- Eragile eta herritarren parte hartze haundiena lortzen dutenak.
- Proiektu berean printzipio edo ezaugarri gehien lantzen dituztenak.
- Herriarengan eta herritarrengan eragin gehien dutenak.

Hezkuntza Proiektuaren filosofiarekin bat eginez, proiektu integratzaileen aldeko apustua egin da. Herri hezitzaileak, guztiokin eta guztiontzat egingo duelako lan, beti ere hezkuntza eredu integral bat oinarri izanik.

Plana garatzeko lau urteko denbora tartea proposatzen da eta baita berau gauzatzeko kudeaketa egitura ere. Kronogramarekin batera aurrekontu estimazio bat jasotzen du dokumentuak, udalak kontutan izan dezan bere urteroko aurrekontu ariketetan. Dena dela, proiektuak gauzatzeko derrigorrezkoak diren eta aurreikusi ezin diren hainbat aktuzioen kostuak ere egon daitezke eta hauek, plana garatzearekin batera joango dira argitzen.

Herriko Hezkuntza Proiektua prozesu parte hartzailea izan da bere sorreratik, ezin bestela izan herri hezitzailea bada helmuga. Ildo berari jarraituz, bigarren fase honetan ere hainbat parte-hartze saio antolatu dira, behar eta arreta berezia eskatzen duten kolektiboekin ahalegin berezia eginez. Talde eragileak landu du oinarritzko zirriborroa baina hau osatze aldera hainbat kontraste saio deitu dira: etorri berriekin, adinekoekin, haur eta gazteekin eta hezkuntza mahaiarekin. Parte-hartzea ezin hobea izan da eta ekarpena oso aberatsa. Aurkezten den dokumentua beraz, guztion parte-hartzearekin osatua da.



**urtxintxa**  
*eskola*

Azkenik aipatu, proiektuak bizia eta dinamikoa behar duela izan. Herria bizirik eta aldatuz doan heinean, proiektua ere moldatuz joango da eta alderantziz, proiektua aurrera doan heinean herriaren garapenean eragina izango du. Dokumentu hau soilik abiapuntua da, HERRIXAK HEZI ! helmuga. Bidean, une oroko balorazio eta baldintzetara egokitzen aberastuz joango da, herri hezitzailearen bidean pauso sendoak emanez. Honetarako aldiz, ezinbesteko izango da proiektu eta eragileen koordinazio eta elkarrekintza. Beti ere, presak saihestuz, pausu neurtu eta eraginkorrak emanez, bidea adostuz, inplikazioa bultzatuz, elkarlana sustatuz eta norbere autonomia errespetatuz.



## 2. LAN ILDOAK

## 2.1 - GAITASUNAK GILTZARRI / PRESTAKUNTZA

Pertsonen garapen integrala sustatuko duen hezkuntza izango da gurea. Jakintzak, trebetasunak, eta balioak kalitatez lantzeaz gain; herritar sortzaile, ekintzaile, burujabe eta kritikoak sortzen lagunduko duen hezkuntza eredua. Behatutakoa kritikotasunez aztertu eta norbere pentsaera propioa eraikiko duten pertsonak heziko dituen. Jakintza intelektualari garrantzia emanez; pertsonen autoestimua garapenaren oinarrian ipiniko duena; emozioen eta pertsonen arteko harreman nahiz eskuhartzeen lanketan sakonduz.

### Helburua:

Gaitasunen garapen esanguratsua ahalbidetzea, norbanakoaren gaitasunak aintzat hartuz, pertsonaren errealizazio osoa lortzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen konpetentzia maila hobetzea, erabakiak hartzeari, sormenari eta garapen pertsonalari dagokionean</li> <li>• Sormena, gorputza adierazpena, emozioak, pertsonen esparru soziala, erabakiak eta ardurak hartzeko gaitasuna eta antzeko gaitasunak indartzea</li> <li>• Hezkuntzako esparru guztietan eta landu beharreko gaietan ikasleen erabakitze ahalmena handitzea</li> <li>• Pertsonen autoestimua lantzeko metodologiak aplikatzea</li> <li>• Bakoitzaren gaitasunak eta gogoak aurrera eramatea bultzatzea</li> <li>• Elkarlana bultzatzea</li> </ul>	<p>“Eskola Bidea” 1go proiektua “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</p>	

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntz gaitasunak lantzea</li> <li>• Hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan komunikatzeko trebatzea. Haurren hiztegia aberastea</li> <li>• Euskara lantzea eta kanpotik datorren jendeari euskara ikasteko erraztasunak ematea</li> </ul>	<p>“Eskutik Eskura” 4. proiektua</p>	<p>“Sorapedia” Proiektua.  <a href="http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala">http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala</a> Gaitasunak lantzeko tresna lagungarria. Ikasleen lanak bertan argitaratzeko bideratu daitezke eta hizkuntza eta idazketa landu daitezke adibidez</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitatearen beharren arabera formazio jarraitua eskaintzea</li> <li>• Gaitasunak proiektuen bidez lantzen ikasteko irakasle eta hezitzaileak trebatzea</li> <li>• Pertsonen garapen integrala bermatzeko gurasoentzako trebakuntza eskaintzea</li> </ul>	<p>“Eskola Herritarra” 3. proiektua</p>	



## 2.2 - INKLUSIOA

Norbanakoen garapenean lagunduz denontzako den hezkuntza. Pertsona guztiak bere baitan hartzen dituen; baldintza fisiko, intelektual, kultural, sozial, emozional, linguistiko edo beste batzuegan arreta ipiniz guztion beharretara egokituko den kalitatezko hezkuntza eredu. Berezitasun oro balioan ipiniz, hauek positibotzat hartu bereizkeriarik gabe landuko dituen. Herritarren aniztasunean oinarrituz herriko komunitate osoari egokituko zaion hezkuntza da gurea; guztion behar eta premiak kontutan hartuz denon partehartzea bilatuko duena eta pertsonen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsiko dituen. Aukera berdintasuna oinarri, elkartasunean heziko gaituen herria.

### Helburua:

Inklusio osoa sustatzea, pertsona guztiak bere baitan hartuz eta guztion beharretara egokituz, herritar ororen hezkuntza aukerak bermatzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona guztien inklusio osoa bermatzea</li> <li>• Pertsona bakoitzak interes, behar eta ilusio ezberdinak dituela errespetatzea</li> <li>• Hezkuntza metodologiak pertsona bakoitzera egokitzea</li> <li>• Hezkuntza guneak herritar ororen esku jartzea (adin, genero eta kultura ezberdinak daudela kontutan izanda)</li> </ul>	<p>“Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza eskubidea arriskuan jar dezaketen oztopoak ezabatzea</li> <li>• Behar edo gaitasun ezberdinak dituzten pertsonentzako tasa ezberdinak jartzea</li> </ul>	<p>“Eskutik Eskura” 4.proiektua “Aukeran Danok” 5. proiektua</p>	

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren aniztasuna kontutan hartuta, adina, kultura, hizkuntza... denen parte hartzea sustatzea modu inklusiboan</li> <li>• Kultura ezberdinetako ezaugarriak errespetatuz, bata bestearen ohiturak ezagutzea</li> <li>• Jatorri ezberdinetako herritarrei euskara ikasteko beharra sortzea</li> </ul>		<p>“Auzoko” proiektua bat dator helburu hauekin eta abian dago</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Komunitate osoaren eta batez ere gurasoen parte hartzea bultzatzea</li> </ul>		<p>Proiektu guztietan kontutan hartuko da</p>

## 2.3 - PARTE HARTZEA

Gure hezkuntza herritar guztien parte-hartzeaz eraikiko da eta hezkuntza eredu honek, era berean, herritar guztien parte hartzea sustatzea izango du xede. Hezkuntza komunitatea herritar guztiek osatzen dutela ulertzen dugu; hezitzaile, ikasle, familia nahiz gainontzeko herritarrek. Eta beraz, erabakiak guztion artean hartzea eta lanak eta ardurak elkarbanatuz jardutera garamatza. Honen baitan parte hartzea ahalik eta horizontalena eta anitzena izan dadin herriko haur eta gazteak jarriko ditugu erdigunean hauen parte-hartzea bereziki sustatuz. Izan ere, haurren herria, guztion herria da eta haurrentzako ona dena guztiontzako da ona.

### Helburua:

Hezkuntza komunitateko kideen arteko komunikazioa, partaidetza eta elkarlana bultzatzea, herritarron beharrak identifikatuz eta inplikazioa eraikiz, hezkuntza arloko erronkei elkarrekin aurre egiteko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritar ororen parte hartzea sustatzea, deialdiak irekiagoak, erakargarriagoak eta pertsonalizatuagoak eginez</li> <li>Behar eta arreta berezia eskatzen dituzten giza taldeek parte hartze prozesuetan lekua izan dezaten baliabide eta metodologia egokiak sortzea; haurrak, adinekoak eta etorkinak.</li> </ul>	<p>Proiektu guztiak parte hartzean oinarrituko dira.</p>	<p>Proiektu guztietan planifikatuko da parte hartzea. <a href="#">Etorkin batzuk prest daude zubi lana egiteko beraien komunitatearekin.</a></p>

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko hezkuntza eragile guztien eta herritarren arteko komunikazioa, lankidetzeta eta elkarlana sustatzea, sendotzea eta bermatzea</li> <li>• Hezkuntza komunitateko eragileen arteko parte hartze gune iraunkor bat bermatzea</li> <li>• Familia eta herritarren bizipen eta esperientziak elkar banatzeko guneak ahalbidetzea</li> <li>• Ikastetxeak egiten dituzten hainbat ekintza herrira zabaltzea eta alderantziz</li> </ul>	<p>Proiektu guztiak parte hartzean oinarrituko dira.</p> <p>“Jolasarekin Hezkuntza Plazara” 6. proiektua</p>	<p>Hezkuntza Batzordea, Talde Eragilea eta Hezkuntza Mahaia. HHP-aren motorrak dira. Honenbestez, gune iraunkorrak badaude.</p> <p>“Alkarri” proiektua lagungarria izan daiteke generazio arteko dinamikak egiteko.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren ekintzaitasuna handitu inizatiba sozialen alorrean</li> </ul>	<p>“Eskutik Eskura” 4. proiektua</p>	

## 2.4 - HERRI IDENTITATEA

Soraluzeko herriko ezaugarri historiko, sozial eta kulturaletan oinarrituko den hezkuntza eredua, belaunaldien arteko transmisioa sustatzeaz gain, herri identitatea eta ezagutza zabalitzen eta garatzen ariko dena. Euskal kultura ardatz hartuta, gainontzeko kulturetan barneratuko dena.

### Helburua:

Euskal Herriko eta Soralezeko herriko kulturaren (ohiturak, ezaugarriak, historia...) ezagutza eta transmisioa bermatzea, gure herriko nortasuna oinarritzat hartuz eta elkarrengandik ikasiz, herri identitatea eta jakintza garatzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Identitateak estatikoak ez direla kontuan hartuz, Soralezeko herri identitatearen eta herri jakintzaren transmisioa bultzatzea</li> <li>• Herri Curriculuma osatze bidean, pausoak ematen joatea</li> <li>• Gazteek herri identitatea ezagutzeko ekintzak burutzea</li> <li>• Euskararen presentzia handiagotzea</li> </ul>	<p>“Soraluze bizi, Soraluze izan” 7. proiektua</p>	<p>“Sorapedia” Proiektua.  <a href="http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala">http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala</a> Unitate didaktikoetan ez dagoena bertan egongo da eskuragarri</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur transmisioa bermatzea norabide guztietan, bertako eta bertakoturiko kulturen artean</li> </ul>	<p>“Soraluze bizi, Soraluze izan” 7. proiektua</p>	

## 2.5 - ELKARBIZITZA ETA ELKARTASUNA OINARRA

Herritarrok elkar errespetatuko dugun jendarte justu eta solidario bat bultzatuko duen hezkuntza da. Guztion eskubideak bermatuko dituena eta elkarbizitza oinarri hartuta talde giroa sustatu eta besteengan pentsatzen lagunduko duena. Gatazka egoeretan elkarrizketa eta negoziazioa sustatuko dituena.

### Helburua:

Pertsonen arteko errespetuan heztea, bizikidetzarako esku-hartzeak bideratuz eta gatazkak modu positiboan konpontzeko gaitasuna garatuz, elkartasun jarrerak barneratzeko eta aplikatzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen arteko errespetuan oinarritutako hezkuntza bultzatzea</li> <li>• Beste kultura batzuekiko errespetua transmititzea</li> <li>• Indibidualismorako joera elkarbanatzeko joerarekin ordezkatzeko saiatzea</li> <li>• Elkarbizitza denon artean adostu eta erabakitzea</li> <li>• Gurasoen trebakuntza sustatzea</li> <li>• Aukera berdintasunari buruzko gaietan trebatzea</li> <li>• Eskolan erabiltzen diren ikaskuntza kooperatiboko metodologia ezberdinak herrian aplikatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Eskola Herritarra” 3. proiektua</li> <li>• “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Auzoko” proiektuak lagundu dezake elkarbizitza eta elkartasuna lantzen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Desadostasunak eta gatazkak hitzaren bidez konpontzeko gai izango diran pertsonak heztea</li> <li>• Gatazkak modu asertibo eta osasuntsu batean kudeatzeko baliabideak eskaintzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Eskola Herritarra” 3. proiektua</li> <li>• “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</li> </ul>	

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritar oro (haur, gazte eta heldu) batuko gaituzten gune eta ekintzak sortzea</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Edozein egitasmo aurrera ateratzerako orduan kolektibo ezberdinak kontutan izango dira.</li> <li>“Alkarri” proiektuak gune hauek sortzen lagundu dezake.</li> </ul>

## 2.6 - EUSKARA

Gure herriko berezko hizkuntza den euskara ardatz eta elementu integratzaile bezala harturik, errealitate eleanitz batean lan egiteko bideak jorratuko dituen. Hizkuntza guztiak balioan ipiniz, euskara bera indartu eta sustatzeko pausoak emango dituen hezkuntza eredu.

### Helburua:

Euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza oro balioan ipiniz eta euskara guztion hizkuntza gisa aitortuz, eguneroko jarduneko hizkuntza izateko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskararenganako kontzientziazioa handitzea</li> <li>• Hezkuntzako kide guztien artean euskararen erabilera sustatzea</li> <li>• Hezkuntzako arlo guztietan euskararen presentzia bermatzea</li> <li>• Euskara gozamenarekin lotzea</li> <li>• Euskara modan jartzen saiatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoa 2014-2018. (1go eranskinean Hezkuntzarekin lotura duten ekintzak)</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• HHP-ko proiektu guztietan hizkuntza irizpideak txertatuko dira.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hizkuntza guztiak balioan ipiniz, euskara guztion hizkuntza gisa aitortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoa 2014-2018. (1go eranskinean Hezkuntzarekin lotura duten ekintzak)</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaltzaleoi begirako tresnak eskuratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoa 2014-2018.(1go eranskinean Hezkuntzarekin lotura duten ekintzak)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>



## 2.7 - HEZKIDETZA

Jendartearen gertatzen den sexuaren arabera bereizketari aurre eginez, pertsonak banakotasunean heziko gaituen hezkuntza eredua izango da gurea. Genero eraikuntzetatik at, izaera ezberdinak onartuz egiten den pertsonen hezkuntza sustatuko da. Irizpide sexistak barnebiltzen dituzten rol, estereotipo eta baloreak transmititu gabe hauek deseraikitze lan egingo duen prozesu hezitzaile kontzientea da. Bestelako jendarte eredu parekide bat eraikitzea bidean; norbere bizitza proiektuen jabe izango den pertsona autonomoak heziko dituen hezkuntza eredua.

<b>Helburua:</b>		
Norbere bizitza proiektuen jabe izango diren pertsona ahaldunak heztea, ikuspegi hezkidetzaitetik behatuz eta bazterketa mota guztiei aurre eginez aukera berdintasuna bermatzeko.		
<b>Tarteko helburuak:</b>	<b>Proiektuak</b>	<b>Oharrak</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikuspegi hezkidetzaitilea gureganatzeko kontzientziazioan sakontzea</li> <li>Trebakuntza saioak antolatzea</li> <li>Hezkuntzaren portzentai handiena eskolaz kanpo ematen dela ulertaraztea</li> </ul>	Soraluzeko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana. (2. eranskinean hezkuntzarekin lotura duten ekintzak)	<ul style="list-style-type: none"> <li>HHP-ko proiektu guztietan genero ikuspegia kontutan hartuko da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikuspegi hezkidetzaitetik behatuta dauden erroinei aurre egitea</li> <li>Hezkuntzako esparru ezberdinetan behaketak egitea</li> <li>Pertsonen garapen integrala sustatzea</li> <li>Bazterketa mota guztien eta genero indarkeriaren aurka heztea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Soraluzeko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana. (2. eranskinean hezkuntzarekin lotura duten ekintzak)</li> </ul>	

## 2.8 - KULTURARTEKOTASUNEAN OINARRI

Pertsona ororen kultura eta ohitura desberdinak errespetatu, ezagutu eta hauetaz gozatzea ahalbidetzeko ahalegin berezia egingo duen hezkuntza. Elkarrekin bizitzen ikasiz harreman positiboak eraikiko dituena. Aurreiritziak saihestuz, kultura ezberdinak zaindu eta hauekin gozatuz pertsonak aniztasunetik heziko dituena. Finean, kulturen arteko elkarbizitza sustatuko duena.

### Helburua:

Herriko kultura eta ohitura ezberdinak errespetatzea eta ezagutzea aurreiritziak saihestuz eta harreman positiboak eraikiz, herritarron arteko bizikidetzak hobetzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona (herritar) guztien kultura eta ohiturak ezagutzea, kontuan izatea eta errespetatzea.</li> <li>• Herritarrek gai honekiko dituzten aurreiritziak deseraikitzea</li> <li>• Kanpotik etorritakoak beren esperientziak elkarbanatzera animatzea</li> <li>• Hezkuntza komunitatean eta familietan ematen diren mezuak bateratzea</li> </ul>	<p>“Eskola Herritarra” 3. proiektua            “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua            “Soraluze bizi, Soraluze izan” 7. proiektua            “Jolasarekin Hezkuntza Plazara” 6. proiektua</p>	<p>Sorapedian badute asmoa bideo bitartez etorkinen testigantzak jasotzeko, “Ahotsak” proiektuaren antzera, ahotsen ondare moduko bat sortzea.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorri berriei herrian integratzen laguntzea eta integratzeko nahia piztea</li> <li>• Gu geu berauengana gerturatzen saiatzea beraiek ere gerturatzen lagunduz</li> </ul>		<p>“Auzoko” Proiektuak helburu hauek lortzen lagundu dezake.</p>

## 2.9 - SORMENA

Egoera ezberdinetan irudimenez, dinamikotasunez, eta era berritzaile batez, aukera ezberdinak eraikitzen dituen. Arazoak beharrezkoak ikusarazi eta hauek baikortasunez konpontzeko lan egitera bideratuko gaituen hezkuntza. Horrez gain, herritar ororen gaitasuna den sormena garatzen lagunduko duena, bakoitzaren autoestimua landuz eta ahalduntzea sustatuz.

### Helburua:

Pertsonen sormen gaitasuna eta berezko jakin mina bultzatzea, zailtasunak erronka bihurtuz, bizitzako alor guztietan sortzailea, ekintzailea eta kritikoa izateko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitzako alor guztietan ekintzailea eta kritikoa izaten laguntzea</li> <li>• Haur eta gazteen ekimena sustatzeko baliabideak jartzea</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Eskola Herritarra” 3. proiektua</li> <li>• “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehiaketak, antzerki saioak eta musikaldiak antolatu, antolatzen dira</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen sormen gaitasuna eta berezko jakin-mina modu ludiko baten sustatzeaz</li> <li>• Haurren lehen urteetan sormenari garrantzia gehiago ematea</li> <li>• Helduek beren sormena berreskuratu dezaten baliabide ezberdinak jartzea</li> <li>• Herritar guztiei irekita egongo diren proiektuak martxan jartzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</li> <li>• “Sormen Tallarra” 8. proiektua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzako dantza garaikideko tailerra martxan da.</li> <li>• PLHI-n irakasleak formatzen hasi dira sormena hurrekin lantzeko.</li> </ul>

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormena helburu izateko herriko espazio orok sormena lantzeko aukerak eskaini ditzan lan egitea</li> <li>• Herriko biztanle guztiak jarduera librean aritzeko espazio zabal bat jartzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Haurren Herriari Ekin” 9. proiektua</li> <li>• “Sormen Tallarra” 8. proiektua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>

## 2.10 - JOLASA OINARRI

Gure hezkuntza ereduak, jolasa izango du oinarri, eta arriskuak hartuz bizitzeko aukera emango duen jolasa askea sustatuko du. Jolasa munduari behatzeko eta mundua eraikitzeko bidea da. Finean, hezkuntza prozesu osoa modu gozagarrian plazaratzen saiatuko da, jolasa hezkuntzarako tresna ezinbesteko bezala aitortuz.

### Helburua:

Herria “herri hezitzaile” bihurtzea, herria esperimentaziorako, sormenerako eta jolaserako gune bihurtuz, pertsonen garapena ahalbidetzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolasaren bitartez heztea</li> <li>• Hezkuntza ez formala indartu eta baloratzea</li> <li>• Hezkuntza eragileak eta familiak formatzea</li> <li>• Hezkuntza oro har, jolasari balio handiagoa ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Eskola Herritarra” 3. proiektua</li> <li>• “Zelan hezi, holan hazi” 2. proiektua</li> <li>•</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolasa kalera ateratzea</li> <li>• Lehengo jolasen transmisioa bermatzea</li> <li>• Jolasean ere haur, gazte eta helduen parte-hartzea sustatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Jolasarekin Hezkuntza Plazara” 6. proiektua</li> <li>•</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herria fisikoki hezitzaile eta jolaserako gune bihurtzea</li> <li>• Herriak jolaserako aukerak eskainiko dituela bermatzea</li> <li>• Sormenerako eta esperimentaziorako guneak egokitzea edota oraingo jolas guneak norabide honetan atontzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• “Haurren Herriari Ekin” 9. proiektua</li> </ul>

## 2.11 - IRAUNKORTASUNA

Norbere buruarekin, gainerako pertsonekin eta inguruarekin kritikoa eta arduratsua izatea sustatuko duen hezkuntza. Herriak berak eskaintzen dituen aukerak balioan ipiniz, hauekin elkar harremanean heziko gaituen hezkuntza. Herriko nahiz inguru naturaleko baliabideekiko ezagutza eta ondoriozko ardura sustatuz, hauen zaintza, lanketa eta errespetuzko erabilera bultzatuko duen hezkuntza.

### Helburua:

Ingurunearen izaera globalaz jabetutako herritarrak heztea, naturaren baliabideez modu arduratsuan jokatzeko ikasiz, berau baloratu, errespetatu eta honekin gozatzeko.

Tarteko helburuak:	Proiektuak	Oharrak
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrei bertako inguru naturala ezagutaraztea</li> <li>Ikasleei mendi ibilbideak ezagutaraztea</li> <li>Ibaia gehiago erabiltzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>“Soraluze bizi, Soraluze izan” 7. proiektua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>“Sorapedia” Proiektua.</li> <li><a href="http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala">http://www.sorapedia.eus/wiki/Azala</a></li> <li>Unitate didaktikoetan ez dagoena bertan egongo da eskuragarri</li> <li>“Mendiak eta Ibaiak” lan taldekoek Deba Ibaiaren inguruko historia soziala jaso eta ezagutarazteko egitasmoa dute 2016rako. Unitate didaktikoen proiektuarekin uztartu eta bateratzea proposatuko diegu</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ingurua zaindu eta mantentzeko kontzientzia sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>“Eskola Bidea” 1go proiektua</li> <li></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jasangarritasunetik, 2016an, ikastetxeetako hondakinen bilketaren inguruko azterketa egingo da.</li> <li>PLHIn baratza jartzea aztertzen ari dira.</li> </ul>



### 3. PROIEKTUAK

### 3.1 – ESKOLA BIDEA

PROIEKTUA	ESKOLA BIDEA
<b>DEFINIZIOA</b>	<p>Herriko haurrak eskolara oinez eta bakarrik joatea sustatu eta erraztu nahi duen ekimena da, helduen laguntzarik gabe eta bide seguruetatik. Esperientzia egingarria da ibilbide zehatz bat izango delako, haur bakoitzak ibili beharrekoa, beti berdina, denbora mugatua eta adin desberdinetako hainbat haurren parte-hartzeaz.</p> <p>(Musika Eskolak eguerdietan eman du urratsen bat norabide honetan. Balorazioa ona egiten dute eta baliatu genezake eredu modura esperientzia hau)</p>
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri hezitzailearen bidean sakontzea.</li> <li>• Haurren autonomia maila hobetzea eta honekin batera autoestimua garapena indartzea.</li> <li>• Haurren garapenean eragitea, erabakitze ahalmena handituz eta ardura hartzeko gaitasuna indartuz.</li> <li>• Herriko inguruak ezagutzuz, segurtasunaren eta gizabideen aldeko jarrerak garatzea. (Haurrek beraiek esanda herrian txakur kaka eta txikle asko dagoela, jarrera hauek zuzentzeko baliagarri izan daiteke)</li> <li>• Kooperazio eta elkartasun jarrerak iradokitzea haur gazteagoak, elbarrituak edo baztertuak jasotzera pasa daitezen.</li> <li>• Adin ezberdinen arteko haurren harremanak eta elkarlana sustatzea. (Haurrei interesgarri iruditu zaie lagunartean joan ahal direlako eta euren lasaitasunerako egokia izan daitekeelako)</li> <li>• Garraiobide iraunkorraren bitartez ohitura jasangarria eta osasuntsuak sustatzea, kutsadura murriztuz. (Haurrei interesgarri iruditu zaie ere patinete edo bizikletan joateko, nahi eta hauendako aparkaleku baten beharra ikusi duten. Autoen aurretik pertsonak jarri behar direla aipatu dute, horretarako segurtasuna bermatuz)</li> <li>• Herri bizigarriagoa, iraunkorragoa eta seguruagoa bihurtzea.</li> <li>• Herritarrak proiektuaren parte egin, komunitatearen elkartasun balioak sendotu eta haurren ardura guztiona bilakatu, segurtasunaren ardura herritar guztion artean elkarbanatuz.</li> </ul>



PROIEKTUA	ESKOLA BIDEA
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrak</li> <li>• Gurasoak eta Familiak (hauek protagonismo berezia, gurasoekin asko landu behar den gaia da beldurrarena)</li> <li>• Hezkuntza formala: HH-LH-HHI</li> <li>• Udala/Udaltzaingoa</li> <li>• Adinekoak</li> <li>• Merkatariak</li> <li>• Herritarrak</li> <li>• Nerabeak</li> <li>• Auto gidariak</li> <li>• Hezkuntza ez formala?</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrengan (beraien garapenean)</li> <li>• Herriaren eta herritarrengan (Batetik, herri seguru eta garbiago bat, ez soilik haurrentzat, guztientzat. Bestetik, herritarren kontzientziazioan eragina du, bai ohitura jasangarrietan zein balio komunitarioetan)</li> </ul>
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Badirudi Eskola Bideak egiteko hainbat eredu daudela, horietako batzuk bidearen segurtasuna bermatzen dute (Ermua), beste batzuk guraso arduradunak dituzte oinarri (Oin Alai – Elgoibar) eta beste batzuk kaleetako herritarrak eta komertzioak inplikatzen dituzte (Donostia). Hau kontutan izan beharko da proiektua garatzerako orduan.</li> <li>• Ondoren, proiektuaren garapenak zehaztuko ditu ekintzak (diagnostikoa, helburuak eta metodologia erabakitzea, bideen segurtasunerako azterketa teknikoa egitea, arazo eta aukerak hautematea, proiektu pilotua bat martxan jartzea...)</li> <li>• Eskoletan proiektuarekin lotura duten ekintzak egin daitezke. Proiektu moduan landu daiteke LH-n. DBHK jasangarritasun helburu orokor modura izanik interesgarria izan dakioke proiektua.</li> </ul>

<b>PROIEKTUA</b>	<b>ESKOLA BIDEA</b>	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIOAK</b>	<b>Zuzenean:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Iraunkortasuna</li> <li>• Partehartzea (haurrei arreta berezia)</li> </ul>	<b>Zeharka:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitza</li> <li>• Euskara</li> <li>• Hezkidetza</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Inklusioa</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jasagangarritasuneko lan taldearekin</li> <li>• Udalarekin/Udaltzaingoarekin / Hirigintza sailarekin</li> <li>• Guraso elkartearekin</li> <li>• Eskolekin HH-LH-HHI</li> <li>• Zahartzaro aktiboko lan taldearekin / Alkarri</li> <li>• Bizikalerekin</li> </ul>	
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuak talde propio bat beharko luke. Bertan eragile ezberdinetako kideak bilduko dira</li> <li>• Gurasoek protagonismo berezi izanik, proiektuaren arduraduna guraso bat.</li> </ul>	
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2018 5.000 euro</li> <li>• 2019 5.000 euro</li> <li>• 2020 5.000 euro</li> </ul>	

PROIEKTUA	ESKOLA BIDEA
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2018 diagnostiko/azterketa fasea + diseinu fasea. Segurtasun neurrien ezarpena.</li> <li>• 2019 proiektu pilotua + ezarpen fasea</li> <li>• 2020 ezarpen fasea</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Francesco Tonucci-ren <i>Haurren Hiria</i>.</li> <li>• Hik Hasi-ren 27. monografikoa <i>Herri Hezitzailea Eskola Herritarra</i>.</li> <li>• <a href="https://sv010.basauri.net/benet/agenda21/docs/PANEL-4_definitivo.pdf">https://sv010.basauri.net/benet/agenda21/docs/PANEL-4_definitivo.pdf</a></li> <li>• <a href="http://www.donostiamovilidad.com/eu/mugikortasun-jasangarriaria/eskola-bidea/">http://www.donostiamovilidad.com/eu/mugikortasun-jasangarriaria/eskola-bidea/</a></li> <li>• <a href="https://www.durango-udala.net/portalDurango/p_86_final_Contenedor_5.jsp?seccion=s_fdes_d4_v1.jsp&amp;contenido=14809&amp;tipo=6&amp;nivel=1400&amp;layout=p_86_final_Contenedor_5.jsp&amp;codResi=1&amp;codMenu=251&amp;codMenuPN=3&amp;codMenuSN=69&amp;codMenuTN=361&amp;tmn=1&amp;language=eu">https://www.durango-udala.net/portalDurango/p_86_final_Contenedor_5.jsp?seccion=s_fdes_d4_v1.jsp&amp;contenido=14809&amp;tipo=6&amp;nivel=1400&amp;layout=p_86_final_Contenedor_5.jsp&amp;codResi=1&amp;codMenu=251&amp;codMenuPN=3&amp;codMenuSN=69&amp;codMenuTN=361&amp;tmn=1&amp;language=eu</a></li> </ul>

### 3.2 – ZELAN HEZI, HOLAN HAZI

<b>PROIEKTUA</b>	<b>ZELAN HEZI, HOLAN HAZI (metodologian sakontzen)</b>
<b>DEFINIZIOA</b>	HHP aren helburuak lortze bidean metodologia klabea izanik, Hezkuntza eragileek ezartzen dituzten hezkuntza metodologietan sakontzen lagunduko digun egitasmoa. Diagnostiko edo hausnarketa bat eginez, ondorioak jasoz eta behar izanez gero hobekuntzak ezarriz.
<b>HELBURUAK</b>	<p>Hezkuntza proiektuko hainbat helburu lortzeko pausoak ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Gaitasunen</b> garapen esanguratsua ahalbidetzea, norbanakoen gaitasunak aintzat hartuz, pertsonen errealizazio oso lantzeko. (kritikotasuna, komunikazioa, erantzukizuna, taldean lan egitea, ekintzailetasuna, burujabe izatea, autoestimua, emozioak)</li> <li>• <b>Inklusio</b> oso sustatzea, pertsona guztiak bere baitan hartuz eta guztion beharretara egokituz, herritar ororen hezkuntza aukerak bermatzeko.</li> <li>• Pertsonen arteko errespetuan heztea, <b>bizikidetzarako</b> esku-hartzeak bideratuz eta gatazkak modu positiboan konpontzeko gaitasunak garatuz, <b>elkartasun jarrerak</b> barneratzeko eta aplikatzeko.</li> <li>• Pertsonen <b>sormen gaitasuna</b> eta berezko jakin mina bultzatzea, zailtasunak erronka bihurtuz, bizitzako alor guztietan sortzaile, ekintzaile eta kritiko izateko.</li> </ul> <p>Eragileen arteko elkarlana sustatuz, ikaslearen ikasketa prozesuaren nolakotasunean jarraipena bermatzea, HH tik DBHraino eta eskolaz kanpoko jardueretan.</p>
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza formala HH-LH-DBH-EPA</li> <li>• Hezkuntza ez formala: ludoteka, gaztetxoko, kukumixo, musika eskola, pintura eskola, eskola kirola, dantza eskola</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleengan</li> <li>• Hezitzaile eta irakasleengan</li> <li>• Guraso eta familiengan</li> </ul> <p style="text-align: right;">Herriarengan</p>

PROIEKTUA	<b>ZELAN HEZI, HOLAN HAZI (metodologian sakontzen)</b>	
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eragileek dituzten metodologiaren inguruko diagnostikoa/hausnarketa (diagnostiko hau eragileek beraiek egingo dute, koordinatzailearen laguntzaz).</li> <li>• Ondorioak atera. Aipatzen diren eragileen artean minimo batzuk zehaztu/adostu denok helburu berdin baterantz joateko eta alde baten egindako lan guztia gero ez galtzeko beste esparru batean sartzean.</li> <li>• Behar izanez gero bitartekoak jarri (formakuntza adibidez).</li> <li>• Behar izanez gero hobekuntzak ezartzen hasi.</li> </ul>	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIBIOAK</b>	Zuzenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inklusioa</li> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Elkarbizitza eta elkartasuna</li> <li>• Sormena</li> </ul>	Zeharka <ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Hezkidetzak</li> <li>• Euskara</li> <li>• Jolasa</li> </ul>

PROIEKTUA	ZELAN HEZI, HOLAN HAZI (metodologian sakontzen)
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolekin HH-LH-DBH-EPA</li> <li>• Ludoteka</li> <li>• Gaztetxokoa</li> <li>• Kukumixo</li> <li>• Guraso elkarteak</li> <li>• Musika eskola</li> <li>• Dantza eskola</li> <li>• Pintura eskola</li> <li>• Eskola Kirola</li> </ul>
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan talde bat (eragileen ordezkarienez osatua) + arduraduna (HHPko koordinatzailea)</li> </ul>
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3.000 euro urtero</li> </ul>
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2018 Eragileek dituzten metodologiaren inguruko diagnostikoa + ondorioak atera</li> <li>• 2019 Plangintza + behar izanez gero neurriak hartu (formakuntza adibidez)</li> <li>• 2020 Beharrezko aldaketak ezartzen hasi</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza ez formalerako, Ovide Decroly autorearen lanak</li> <li>• Goierriko eredia, Ainhoa Unamuno herritarra dabil proiektu honetan.</li> </ul>

### 3.3 – ESKOLA HERRITARRA

PROIEKTUA	ESKOLA HERRITARRA
<b>DEFINIZIOA</b>	<p>Gaur egun egiten dena kontutan hartuta, urte osoan zehar eta hilabeteen behineko maiztasunarekin, hezitzaile, irakasle, guraso, familia, ikasle, elkarteetako kide, eta herritarrei oro har formakuntza eskainiko dien egitasmoa.</p> <p>Proposatutako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuen metodologia (gaitasunak, hezkuntza inklusiboa, elkarbizitza, sormena, kulturartekotasuna)</li> <li>• Elkarbizitza, errespetua eta gatazken kudeaketa</li> <li>• Ikaskuntza kooperatiboa</li> <li>• Jolasaren bidez heztea</li> <li>• Gurasoentzat haurren heziketan trebatzeko formakuntza</li> <li>• Herriko historia eta ondarearen transmisioa. Lotura “Soraluze Bizi, Soraluze Izan” proiektuarekin</li> <li>• Helduekin sormena landu</li> <li>• Haurren hiria eta hurrei begirako hirigintza</li> <li>• Gorputz adierazpena eta emozioen kudeaketa</li> <li>• Teknologia berriak</li> <li>• Kulturartekotasuna (aurreiritziak)</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Hezkidetzak</li> <li>• Euskara</li> </ul>

PROIEKTUA	ESKOLA HERRITARRA
<b>HELBURUAK</b>	<p>Herri hezitzailearen bidean urratsak ematea. (hezkuntza zeregin partekatua da, hezkuntza komunitatea herritar guztiok osatzen dugu, adin mugarik gabe herritar guztiei ikasteko aukera ematea, elkarrengandik jasoz eta elkarri emanez, herritar eta eragileei parte hartzeko aukera emanez, hezkuntza prozesu iraunkorra dela kontutan izatea, herritar ororentzat hezkuntza eskubidea bermatu eta hezkuntza integrala ahalbidetu) Hezkuntza Proiektua aurrera eramateko beharrezkoa den formakuntza eskaintzea eta tresnak eskuratzea. Herritarren arteko eta eragileen arteko transmisioa bultzatzea.</p> <p>Komunitatearen beharren araberako formazioa jarraitua ematea (gaitasunarekin lotura)</p> <p>Formaziorako tresna izateaz gain, proiektua hau parte hartze eta koordinaziorako tresna izatea, bertatik kanalizatu ahalko direlako premiak eta lehentasunak.</p>
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala eta udaleko arlo ezberdinak</li> <li>• Ikasleak</li> <li>• Hezkuntza formala</li> <li>• Hezkuntza ez formala</li> <li>• Guraso elkarteak</li> <li>• Herriko Elkarteak</li> <li>• Herritar aditu eta arituak (hauen artean Jubilatatuak adibidez asko aportatu dezakete)</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrengan</li> <li>• Irakasle eta hezitzaileengan</li> <li>• Ikasleengan</li> <li>• Elkarteengan eta elkarteko kideengan</li> <li>• Guraso eta familiengan</li> <li>• Herriarengan</li> </ul>



PROIEKTUA	ESKOLA HERRITARRA
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzaldiak</li> <li>• Tailerrak</li> <li>• Formakuntza saioak</li> <li>• Bideo emanaldiak</li> <li>• Mahai inguruak</li> <li>• HHIren eskaintza zabaltzeko hitzaldi/kanpainak</li> <li>• Eragile ezberdinak nahastu tematika konkretuak lantzeko</li> </ul>
<b>LANTZEN DIREN PRINTZPIOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Inklusioa</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Elkarbizitza eta elkartasuna</li> <li>• Euskara</li> <li>• Hezkidetza</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Sormena</li> <li>• Jolasa</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza formalarekin</li> <li>• Hezkuntza ez formalarekin</li> <li>• Udaleko arlo ezberdinekin (euskara, berdintasuna, ongizatea, kirola, hirigintza)</li> <li>• Elkarrekin (Alkarrik badu formakuntza eskaintzeko asmoa adibidez)</li> <li>• Guraso elkarrekin</li> </ul>

PROIEKTUA	ESKOLA HERRITARRA
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arduraduna teknikaria, beharrak eta erronka aztertzeko eta horren baitako plangintza egiteko.</li> <li>• Koordinazio lan taldearekin batera egin daiteke plangintza hau.</li> </ul>
	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> </ul>
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plangintzak esango digu zein aurrekontu beharko den..</li> <li>• 5000 euro urtero?</li> </ul>
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 udazkena plangintza egin eta baita plangintza komunikatiboa ere</li> <li>• 2017 eskola txikia martxan jarri</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	

### 3.4 – ESKUTIK ESKURA

PROIEKTUA	ESKUTIK ESKURA
<b>DEFINIZIOA</b>	Behar bereziak dituzten ikasleei eskolaz kanpoko laguntza ematea bultzatzen duen ekimena da. Herritarrak izango dira emaitzak. Erabakitzeko dago emaitza hauek boluntarioak modura arituko diren edota ordainsari baten truke.
<b>HELBURUAK</b>	<p>Arrazoi ezberdinak medio, ikasgelako erritmoari jarraitu ezin dioten ikasleei bultzada ematea eta errefortzu akademiko bat eskaintzea.</p> <p>Ikasleen autoestimuan eta motibazioan eragitea.</p> <p>Ikasleen esfortzua eta lana kontutan hartuz ikasteko grina transmititzea.</p> <p>Gizarte bazterketa oztopatzea.</p> <p>Ikasle guztien hezkuntzarako aukera berdintasuna bermatzea.</p> <p>Eskolak agintzen dituen etxeko-lanez gain, ume bakoitzaren beharretan arreta jartzea.</p> <p>Eskola eta gurasoekin batera ikaslearen jarraipena egitea.</p> <p>Eskolako lanak egiteko gune egoki bat eskaintzea.</p> <p>Generazio ezberdinen arteko harremanak sustatzea.</p> <p>Hizkuntza gaitasunak lantzea</p>
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritar emaitzak (etorkinak emaitza modura interesgarria hizkuntza gaitasunentzako, baina irakasteko gaitasuna izan beharko dute)</li> <li>• Ikasleak</li> <li>• Eskolak, LH, DBH, HHI</li> <li>• Guraso eta familiak</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko ikasleengan (beraien garapenean)</li> <li>• Herritarrengan (elkartasunezko balore eta jarrerak zabaltzen)</li> </ul>

PROIEKTUA	ESKUTIK ESKURA	
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren garapenak zehaztuko ditu ekintzak baina oinarrian astean zehar eta maiztasun jakin batekin saio partikularrak ematean datza.</li> <li>• Proiektua martxan jartzeko eragile ezberdinen artean diagnostiko bat egin eta beharren arabera emaile taldea osatu beharko litzake.</li> <li>• Egun modu pribatuan horrelako zerbitzua ematen dutenekin elkarlana sustatzea eta proiektu honen hartzaile izateko irizpideak zehaztea komenigarria litzake.</li> <li>• Ekintza berezi modura hizkuntza ezberdinak lantzeko mintzapraktikak egin daitezke</li> </ul>	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIBIOAK</b>	Zuzenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inklusioa</li> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Parte hartzea</li> </ul>	Zeharka: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Elkarbizitza</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalarekin</li> <li>• Eskolekin LH,DBH,HHI</li> <li>• Guraso eta familiekin</li> <li>• Zahartzaro aktiboko lan taldearekin / Alkarri</li> <li>• Beharriaren lan taldearekin</li> </ul>	

PROIEKTUA	ESKUTIK ESKURA
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua martxan jartzeko eragile ezberdinez osatutako lan talde bat egon beharko da.</li> <li>• Gerora, lan taldea proiektuan emaileak diren herritarrez osatua egon beharko litzake eta proiektuaren jarraipena egiteko urtean maiztasun konkretu batekin beste eragileekin elkartu.</li> <li>• Taldeko arduraduna proiektuan emaile modura dabilen herritar bat.</li> </ul>
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola materialerako urtean 500 euro</li> <li>• Azpiegitura edo lokal egoki bat beharko da. KZ gunea adibidez.</li> </ul>
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 emaile posible batzuekin kontaktuak egiten hasi + taldea eratu + proiektua diseinatu</li> <li>• 2017 emaile taldea osatuta</li> <li>• 2018 ezarpen fasea</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://www.hazietaikasi.org/index-EU.php">http://www.hazietaikasi.org/index-EU.php</a></li> </ul>

### 3.5 – AUKERAN DANOK

PROIEKTUA	AUKERAN DANOK
<b>DEFINIZIOA</b>	Zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrek hezkuntza araututik kanpoko eskoletan parte hartu ahal dezaten, diru-laguntzak eskainiko dituen programa. Ekintza horiek oso garrantzitsuak izaten dira jendartearentzat eta askotarikoak dira: artearen, musikaren eta dantzaren arloei dagozkien prestakuntza ekintzak, baita kirol arloari eta aisialdiari dagozkionak ere. (Gaur egun abian dagoen Hezkuntza Formaleko diru-laguntza sistemaren osagarri izan daiteke)
<b>HELBURUAK</b>	Inklusio osoa sustatzea, pertsona guztiak bere baitan hartuz eta guztion beharretara egokituz, herritar ororen hezkuntza aukerak bermatzeko Hezkuntza eskubidea arriskuan jar dezaketen oztopoak ezabatuz, pertsona ororen inklusio osoa bermatzea. Hezkuntza guneak herritar ororen esku jartzea.
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala (ongizate saila / haur eta saila / hezkuntza saila)</li> <li>• Hezkuntza ez formaleko: Ludoteka, Musika eskola, Dantza eskola, Pintura eskola, Futbola, multikirola, judo, igeriketa, kukumixoko jarduerak (udalekuak, irteerak, ume gaiztuen festa), gimnasia erritmikoa.</li> <li>• Hezkuntza formalean: dauden laguntzeri gehitzeko, HHI (Bergaran egin behar duenarentzat garraiorako laguntza) eta jantokirako laguntzak.</li> <li>• Guraso eta familiak</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasle, familia eta herritar oroengan</li> </ul>
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza arauturako dauden diru-laguntzen egitasmoaren osagarri modura planteatu daiteke.</li> <li>• Beka hauek banatzeko irizpideak adostu ondoren, aplikatzea besterik ez litzake izango.</li> </ul>

PROIEKTUA	AUKERAN DANOK	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIPIOAK</b>	Zuzenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inklusioa</li> <li>• Gaitasunak</li> </ul>	Zeharka: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Elkarbizitza</li> <li>• Euskara</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Sormena</li> <li>• Jolasa</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala (hezkuntza saila + ongizate saila + haur eta gazte saila)</li> <li>• Hezkuntza formala eta ez formala</li> <li>• Familiak</li> </ul>	
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irizpideak adosteko foroa Hezkuntza Batzordea izan daiteke, beti ere, Ongizate Sailarekin elkarlanean.</li> <li>• Arduraduna teknikaria.</li> <li>• Behin irizpideak adostuta ez du aparteko lanik eskatzen, urteko balorazioak egiten joatea soilik</li> </ul>	
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Formalerako: 6000 + 2000 (irteerak)</li> <li>• Hezkuntza ez formala: 5000 (baloratu beharko da nahikoa den)</li> </ul>	

PROIEKTUA	AUKERAN DANOK
<b>EPEAK</b>	Hezkuntza formalean: (LH+DBH+HHI) <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 irizpideak adostu</li> <li>• 2016 - 2017 bekak banatu</li> </ul> Hezkuntza ez formala: <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 irizpideak adostu</li> <li>• 2017 aurrekontuetan jaso</li> <li>• 2017 - 2018 bekak banatu</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azpeitian antzerako sistemari bat dute. Galdetu daiteke bertako sistemaren inguruan.</li> </ul>



### 3.6 – JOLASAREKIN HEZKUNTZA PLAZARA

PROIEKTUA	JOLASAREKIN HEZKUNTZA PLAZARA
<b>DEFINIZIOA</b>	Lau urtean behineko maiztasunarekin, egun oso batez hezkuntza kalera aterako duen ekimena. Hezkuntza eragileak kalean/plazan jardungo dute, jolasak protagonismo berezia izanik
<b>HELBURUAK</b>	<p>Herriko hezkuntza eragile guztien eta herritarren arteko komunikazioa, lankidetzeta eta elkarlana sustatzea, sendotzea eta bermatzea.</p> <p>Lehenengo edizioa kontutan hartuz, Hezkuntza Proiektuko ezaugarri eta erronkei aurre egiteko tresna moduan erabiltzea. Momentuko baldintza eta beharrak hartu beharko dira kontutan.</p> <p>Eskola herrira zabaldu eta herria eskolara gerturatu. Hezkuntza denon zeregina den ideiatik abiatuz, herriko haur, gazte eta helduek zer eta nola ikasten duten herriratzeko eta herritarrei zeregin honetan parte hartzeko aukera emateko.</p> <p>Hezkuntza formala eta ez formala elkarrekin plazaratu, hezkuntzari eskolaz kanpoko dimentsioa emanaz.</p> <p>Hezkuntzari herrian bere tokia eman, eskola eta eragile ezberdinek egiten duten lana balioan jarritz.</p> <p>Ikasleak, haur eta gazteak, subjektu aktibo izatea berain partehartzea bultzatuz.</p> <p>Herria “herri hezitzaile” bihurtzea, herria esperimentaziorako, sormenerako eta jolaserako gune bihurtuz, pertsonen garapena ahalbidetzeko.</p> <p>Jolasaren bitartez hezte.</p> <p>Jolasa kalera ateratzea.</p> <p>Hezkuntza ez formala indartu eta baloratzea.</p> <p>Hezkuntza esparru guztietan jolasaren presentzia handitzea.</p> <p>Jolasean ere, haur, gazte, helduen eta nagusien parte hartzea sustatzea.</p>
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntzako eragile guztiak, ikasleak barne.</li> <li>• Herritarrak (etorkinak prest parte hartzeko eta batzuk zubi lana egiteko berain komunitatea eta proiektuaren artean)</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	Ikasleengan, Herriarengan eta Hezkuntza komunitatearengan eta eragile guztiengan

PROIEKTUA	JOLASAREKIN HEZKUNTZA PLAZARA
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Momentuko erronkak eta helburuek ezaugarrituko dute eguna eta horren baitan erabakiko dira ekintzak</li> <li>• Hortaz gain modu berezian, familia eta herritarren bizipen eta esperientziak elkar banatzeko guneak ahalbidetzea</li> <li>• Herritarren ekintzailetasuna sustatzeko iradokizun anonimoak egiteko gutunontzi bat.</li> <li>• Jolasaren inguruko trebakuntza saioak.</li> <li>• Jolas tradizionalak landu eta lehengo jolasen transmisioa egiteko ekintzak.</li> <li>• Jolas kooperatiboak egin.</li> <li>• Jolaserako euskarazko hitzak irakasteko ekintzak.</li> <li>• Ingurune naturalarekin harremana duten jolasak sustatzeko ekintzak.</li> <li>• Adin nagusiko herritarrak haurrengana gerturatzeko dinamikak antolatu.</li> <li>• Gurasoak/helduak jolasera gerturatzeko ekintzak. Helduekin dakizkigun jolasak aldatzea eta elkar erakusteko ekintzak.</li> <li>• Kultura edo herrialde ezberdinetako jolasak lantzea.</li> <li>• Hezkuntza Proiektuko ezaugarri eta erronkei aurre egiteko tresna moduan erabiltzea. Hau da, jolasaren bidez Proiektuko ezaugarrian lantzea. Momentuko baldintza eta beharrak hartu beharko dira kontutan.</li> <li>• Jolas guneak birpentsatzen proiektuaren borobiltze bezala kokatu.</li> <li>• Ekimen honek ematen duenarekin jolas ezberdinen bideoa eta liburuxka bat egitea.</li> <li>• Haurren proposamenak: udalekuetako urrezko txirrista, tirolina erraldoia, koltxonetak, akrobazia, masajeak.... Jolasaren eguna antolatzeko desiratzen daude.</li> <li>• Gazteen proposamenak: eskola orduetan egitea, karting, boxeo ring, mini kantxa... herri kirolak ez</li> </ul>

PROIEKTUA	JOLASAREKIN HEZKUNTZA PLAZARA
-----------	-------------------------------

<b>LANTZEN DIREN PRINTZIOAK</b>	<b>Zuzenean:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Jolasa</li> </ul>	<b>Zeharka:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Inklusioa</li> <li>• Herri identitatea</li> <li>• Elkarbizitza</li> <li>• Euskara</li> <li>• Hezkidetzatza</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Sormena</li> <li>• Iraunkortasuna</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguna ezaugarritzean ikusi beharko da baina aukerak anitzak dira. Hezkuntza eragileen arteko gain Alkarrekineko lan taldeekin edota bestelako elkarte eta eragileekin ere sortu ahal dira sinergiak.</li> </ul>	
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eguna antolatzeari begira, urte horretan koordinazio lan taldea osatu beharko da. Ardura Hezkuntza Proiektuko koordinatzaileak, Kukumixo eta ludotekarekin batera. Beti ere Hezkuntza Batzordearekin koordinatuta joan beharko du.</li> </ul>	
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 5.000 euro eguna antolatzeak</li> </ul>	
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2019 Jolasarekin Hezkuntza Plazara.</li> </ul>	
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2014ko Hezkuntza Plazarako dokumentazioa.</li> </ul>	

### 3.7 – SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN

PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN
DEFINIZIOA	<p>Herriaren historia eta kultur ondarea jasotzen dituzten unitate didaktikoak sortzeko asmoa duen ekimena. Unitateak gidatzeko pertsonaiak, ibilbide pedagogikoak, hezitzaileentzako gida, bibliografia eta hainbat baliabide izango ditu. LH eta DBHko ikasleentzat prestatuko dira (baina herriko edozein elkarterentzat ere eskuragarri egongo dira) eta landu nahi diren gaiak eta balioak hauek lirateke: (Gaika egin daiteke edo ibilbide historiko baten baitan gai ezberdinak landuz)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Historiaurrea eta dolmenen ibilbidea.</li> <li>• Herriaren bilakaera eta historia.</li> <li>• Jarduera ekonomikoak. Armagintza.</li> <li>• Herriko kondaira, pertsonaiak eta eraikinak.</li> <li>• Herriko guneen eta hirigintzaren bilakaera, landa eremua eta baserria, auzoak, industrialdea.</li> <li>• Ingurunea, gure altxorrak; ibaia, fauna, mendia, parkeak, (iraunkortasunarekin eta osasunarekin lotutako gaiak: zaborra, garraiobideak, kirola). Ingurunearekiko errespetua</li> <li>• Herriko abesti, dantza, jai, jolas eta kultur gileak. Sormena.</li> <li>• Herriaren kokapena eta azpiegiturak.</li> <li>• Herriko toponimia.</li> <li>• Jende taldeak eta etorrik direnak. Kulturartekotasuna (etorkinak prest beraiena erakusteko)</li> <li>• Euskara, euskalkia eta hizkuntza aniztasuna.</li> <li>• Gerra eta memoria historikoa. Elkarbizitza.</li> </ul>

PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN
<p><b>HELBURUAK</b></p>	<p>Identitateak estatikoak ez direla kontutan hartuz, Soraluzeko herri identitatearen eta herri jakintzaren transmisioa bultzatzea.</p> <p>Soraluzeko historia eta kultur ondarea modu erakargarrian bildu eta ezagutzera ematea.</p> <p>Herri Curriculuma osatzeko ekarpena egitea.</p> <p>Soraluzeko historiaren eta ondarearen inguruan jakin beharko genukeena ezagutzea, sentitzea eta partekatzea.</p> <p>Herria sentituz eta maitatuz herri-kohesioa eta herritartasuna garatzea.</p> <p>Gertuko ezagutzak erabiliz norberaren herriarekiko interesa eta motibazioa piztea.</p> <p>Espiritu kritikoa sustatzea, iragana eta etorkizunari begira hausnarketa sustatzea.</p> <p>Herritarrengan eta herriarekiko, historiarekiko eta bizitzarekiko jakin-mina sortzea.</p> <p>Ikasleengan komunitate sentimendua areagotzea, herritar izatearen kontzientzia indartzea.</p> <p>Kultur transmisioa bermatzea norabide guztietan, bertako eta bertakoturiko kulturen artean.</p> <p>Jarduerak modu pedagogikoan lantzea.</p> <p>Gertuko baliabideekin oinarritzko gaitasunak lantzea</p> <p>Turismoa sustatzeko balioko luke</p>

PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala</li> <li>• Hezkuntza formala: HH-LH-DBH-HHI</li> <li>• Herri identitateko lan taldea</li> <li>• Ibai eta mendia lan taldea</li> <li>• HIK HASI</li> <li>• Ludoteka</li> <li>• Musika eskola</li> <li>• EPA</li> <li>• Herritarrak</li> <li>• Adinekoak</li> <li>• Ikasleak</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko ikasleengan</li> <li>• Guraso eta familiengan</li> <li>• Herritarrengan orokorrean (herritar ororen eskura egongo bait dira)</li> <li>• Hezitzaile eta irakasleengan</li> </ul>

PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN
EKINTZAK	<p>Proiektuaren garapenerako faseak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zein eduki eta nola erabaki. Zer unitateetan eta zer sorapedian.</li> <li>• Edukiak bildu</li> <li>• Unitateak diseinatu</li> <li>• Unitateak eskolan</li> </ul> <p>Unitatearekin etorriko diren ekintzez gain (ibilbideak, jolasak...):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Generazio ezberdinen arteko transmisiorako ekintzak (haurrak/nagusiak)</li> <li>• Ibairen historiaren zabalpenarekin lotutako ekintzak: jolas gimkanak, bisita gidatuak haurrek haurrentzako eta helduentzako.</li> <li>• Mendi gaineko aztarnetan auzolandegiak.</li> <li>• Haurrek proiektuka landu ditzateke edukiak</li> </ul>

PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIOAK</b>	Zuzenean: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri identitate</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Euskara</li> </ul>	Zeharka: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolasa</li> <li>• Iraunkortasuna</li> <li>• Sormena</li> <li>• Hezkidetza</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Elkarbizitza</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalarekin</li> <li>• Herri identitatea lan taldekoekin</li> <li>• Mendia eta ibaia lan taldekoekin</li> <li>• Zahartzaro aktiboko lan taldekoekin / Alkarri</li> <li>• Eskolekin HH-LH-DBH-HHI</li> </ul>	
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektua martxan jartzeko lan taldea + arduraduna (herri identitateko kidea?)</li> <li>• Behin unitateak eskoletan izanda ez da lan talde egonkorrik beharko.</li> </ul>	



PROIEKTUA	SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren dimentsioa kontutan izanda arduradunaren kostua. 3000 euro</li> <li>• Diseinatzailea + inprenta. 13000euro</li> <li>• Hik Hasi-ko aholkularitza</li> </ul>
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 Herri identitatekoekin erabaki zer eta nola. Behar izanez gero Hik Hasikoei aholkularitza eskatu</li> <li>• 2017 unitateak diseinatu</li> <li>• 2018 unitateak eskuragarri</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="#">Hik Hasi-ren 28. monografikoa II. Herri Hezitzailea Eskola Herritarra.</a></li> <li>• <a href="http://ondarea.errenteria.eus/euskara/unitate-didaktikoak">http://ondarea.errenteria.eus/euskara/unitate-didaktikoak</a></li> <li>• <a href="http://azpeitia.eus/index.php/eu/hasiera/354-suelto/2933-azpeitia-ezagutzen">http://azpeitia.eus/index.php/eu/hasiera/354-suelto/2933-azpeitia-ezagutzen</a></li> <li>• <a href="http://www.arrasate.eus/es/images/hezkuntza/herria-ezagutzen">http://www.arrasate.eus/es/images/hezkuntza/herria-ezagutzen</a></li> </ul>

### 3.8 – SORMEN TALLARRA

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
DEFINIZIOA	<p>Herriko biztanle guztiak jarduera librean aritzeko espazio batez ari gara. Kultur eta arte disziplina ezberdinak kontaktuan eta elkarrekintzan jarriko dituen espazioa. Adin ezberdinetako herritar sortzaile ezberdinak batuko dituen espazioa eta sortzaile ez denari gaitasun hori garatzeko aukera eskainiko dion egitasmoa. Gaur egun modu isolatuan lantzen diren kultur eta arte espresioak batzeko aukerak sortzen lagunduko duen egitasmoa. Eskola pertsona eleaniztunen topagune bada ere, hizkuntza nagusi gisa euskara izango duena. Modu honetan euskara eta bizipen positiboak elkar uztartuz.</p> <p>Artearekin soilik lotu gabe, Sormenaren kontzeptua zabaldu eta bestelako disziplinak garatzeko aukera egongo daiteke espazio honetan; sukaldaritza, mekanika, robotika, programazioa... arlo digitalak aukera haundiak eman ditzake sormena lantzeko.</p> <p>Proiektu honetan ezinbestekoa da azpiegitura. Soraluzek momentuz ez ditu honetarako baldintzak eskaintzen, ez du azpiegitararik. Baina egin daiteke aurretik lan teoriko bat proiektua diseinatuz eta ondoren pentsatu horretarako zer azpiegitura behar dugun eta nola lortu dezakegun. Herriko plan orokorra hor dago eta hurrengo 8 urteetan burutuko da. Dena ondo badoa azpiegiturak sortu/ egon beharko lirateke epe ertain luze baten.</p> <p>Bestetik proiektu interesgarria litzake herrian hutsik eta utzita dauden garai bateko tailer txikiak erabiltzea proiektu honetarako, lokal hauek auzolanean zaharberrituz. Horrekin batera, naturarekin harreman osasuntsu batekin kohesioan joango litzakete proiektua, aisialdia eta bizia kontsumo arduratsu batetik abiatuz. Herri osasuntsu, sortzaile eta iraunkorrago bat sortzen lagunduko duelarik proiektuak.</p> <p>Dena dela, epe ertain-luzera begirako proiektu batez ari garela ez dago zalantzarik. Bitartean, sormena lantzearekin lotura duten ekintzak antolatu daitezke. Egun herriko eskaintzen ez daudenak eta epe motz batera begira egingarriagoak direnak.</p>

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
<p><b>DEFINIZIOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrentzat: Arte eszenikoak (dantza garaikidea aurten abiatu da) eta arte plastikoak eskaintzea. Teknologia eta sukaldaritza lantzeko aukerak aztertu.</li> <li>• Helduentzat: Disziplina konkretuekin lotura duten tailer monografikoak antolatzea. 3 hilabeteko iraupena dutenak eta helburu konkretu batekin; artelan bat egitea. Ondoren artelan horiek herriari erakutsiko zaizkio.</li> <li>• Herritar ororentzat sormena bultzatzeko beka sistema bat sortzea.</li> <li>• Herrian hondatuta/zaharturik egoera txarrean dauden hormak/fatxadak muralen bidez berriztea. Horretarako herriko marrazkilari, grafitigileoi proiektuak aurkezteko aukera eman, eta bozketaz aukeratu. Gero baliabide materialak eman.</li> </ul> <p>Aldi berean ekintza hauek sormenarekiko sentsibilizazioa garatu dezakete herrian, etorkizuneko proiektu potoloa abiatzeko baldintza egokiak sortuz. Abiapuntu interesgarria izan daiteke.</p>

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabeakuntza eskola)
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen sormen gaitasuna eta berezko jakin mina bultzatzea, zailtasunak erronka bihurtuz, bizitzako alor guztietan sortzailea, ekintzailea eta kritikoa izateko.</li> <li>• Herritar ororen autoestimua eta ahalduntzea sustatzea.</li> <li>• Haur eta gazteen ekimenak sustatzeko espazioak eskaintzea. (Haurrek gune hau jolas ea material ezberdinekin irudikatzen dute. Baita musiko jo, entzun eta dantza egiteko ere. Eurentzako gune bat bezala ulertzen dute eta ez dute helduen beharrik ikusten. Gazteei aldiz kostatu zaie irudikatzea gune honetan zer egin dezaketen.)</li> <li>• Helduek beren sormena berreskuratu dezaten baliabide desberdinak eskaintzea.</li> <li>• Adin ezberdinetako herritarren artean berdinetik berdinerako harremanak sortzea</li> <li>• Arte disziplina ezberdinak elkarren arteko harremanean pertsonen gaitasunak lantzeko baliatzea.</li> <li>• Artea, adierazpenerako modu natural eta hitzezkoa ez den komunikazio gisa bultzatzea jendartearen.</li> </ul>
PARTEHARTZAILEAK	<p>Udaleko Kultura Batzordea.</p> <p>Arte eta kultura eskola desberdinak: Dantza eskola, Musika eskola, Antzerki Tailerra, Bertso eskola, Pintura eskola</p> <p>Teknologia berrietan, robotikan eta mekanikan dabilzan enpresak</p> <p>Jakinduria, esperientzia... elkar banatzeko gogoz dagoen herritar oro:</p> <p>Eskulanak, jostea (puntua, gantxilloa, josi...), eskulturak, akrobazia, zirkoa, ipuinak, narrua landuz, egurra landuz, gorputz adierazpena, dantza, jolasa, sukaldaritza, mekanika, teknologia berriak...</p>
ERAGINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriarengan eta herritarrengan, sortzaileago eta ahaldunduago bilakatuz egunerokoan.</li> <li>• Herritarron artean harreman parekide eta osasuntsuak sortzen.</li> <li>• Herritarron gaitasunak garatuz, kolektiboki jarduteko baliabideak eraikiz.</li> </ul>

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Baldintza hauek</u> oinarri hartuta garatuko den proiektua izango litzateke: batetik prozesuan parte hartzen ari direnen aldamenean egotea inor zuzendu edota epaitu gabe, nor bere esperientzi-pertsonaletik abiatuko bada ere bidean sortzen zaizkion beharrak kontutan hartzea eta ahalik eta anitzena den talde batean lan egitea, giro honetan konparaketa zilegi ez delarik.</li> <li>• Baldintza honek ingurua denontzako egokitzea eta denok geure lekua izatea ahalbidetzen du, denon arteko zaintza eta tratu onak oinarrian ipiniz.</li> <li>• Lehenbizi proiektua baldintza eta helburu hauen baitan <u>zehaztu</u> beharko litzateke. Eta txikitik handitzen joan. Hasiera batean, herrian dauden arte adierazpen guztiak kontuan hartuz eta bakoitzak beretik emateko daukan gogoari kasu eginez, espazio komun bat eraikitzea litzateke asmoa denak elkar uztartuz eta denoi ateak zabalduz.</li> <li>• Espazio fisiko baten irudikatu badezakegu ere, naturarekin harremanean ulertzen den proiektua litzakete. Pertsonon sormen gaitasuna lantzeko beharrezkoa baita hori, nahi ala ez. Gainera, sormena garatzeko bidean erabiliko liratekeen baliabideak eta erabiltzeko moduak iraunkortasunaren oinarriari hertsiki loturik leudeke.</li> <li>• Proiektuaren arabera gune bat aukeratzea litzateke biderik zentzuzkoena. Hala beharren arabera jardungo baikenu. Dena den, herriak eskaintzen dizkigun guneak kontutan hartzea ezinbestekoa litzateke (lehengo tailerrak auzolanean eraberrituz abiatu eta inguru naturalekin harremana pentsatuz).</li> <li>• Gune honetan, harreman horizontalak eraikitze bidean irakasle-ikasle filosofia alboratu beharko genuke, bidelagunak sortuz eta denok denokin ikasiz eta sortuz (kultura, adin, izaera, genero... ezberdinak elkarrekin nahastuz).</li> <li>•</li> </ul>

<b>PROIEKTUA</b>	<b>SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)</b>	
<b>EKINTZAK</b>	<p>Alde batetik, gune horretan berean ordutegi zabal batekin, ikastaro ezberdinak antolatu daitezke, horretarako herriko eragile, herritar ezberdinen parte hartzearekin, nahiz hezkuntza sortzailean aditu direnekin. Horrez gain, ikastaro gisara hezkuntza sortzaile abiapuntu izanik arte espresio ezberdinak uztartuko dituen proiektuak landu daitezke herritarrekin eta herriko eragileekin. Gainera, herritar sortzaileek haien proiektu propioak eraikitzeko gunea ere izan daiteke, espazio komunak baliatuz. Edota, nahi duenak bere prozesuak garatzeko baliabide eta materiala eskaintzeko gunea. Eta bestalde ere, arte espresio ezberdinen arteko gurutzaketa eta nahasketak lantzeko gune nagusi bilakatu.</p> <p>Hau dena, beharrezko baldintza batzuen baitan: norbere gaitasunak garatzeko askatasuna eskainiz, elkarren arteko zaintza oinarrian kokatuz, esperimentazio gunea izanik, euskara lehentasunezko hizkuntza izango duen gunea bilakaturik, ingurugiroan heziz, sormen prozesu kolektiboetako gunea eta unea eskainiz...</p>	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZPIOAK</b>	<p>Zuzenean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormena</li> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Parte hartzea</li> <li>• Euskara</li> <li>•</li> </ul>	<p>Zeharka:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkidetzak</li> <li>• Elkarbizitza</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Jolasa</li> <li>• Herri identitatea</li> <li>• Inklusioa</li> <li>• Iraunkortasuna</li> </ul>

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
<b>SINERGIAK</b>	<p>Aukerak asko zabaltzen dira proiektu honetan herriko talde askok tokia izan dezaketelako. Agian ondoren aipatzen direnak baino gehiago izan daitezke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zahartzaro aktiboko lan taldearekin / Alkarri</li> <li>• Jasangarritasunaren lan taldearekin</li> <li>• Musika eskola</li> <li>• Pintura eskola</li> <li>• Herriko sortzaileak</li> <li>• Antzerki tailerra</li> <li>• Bertso eskola</li> <li>• Dantza eskola</li> <li>• Pil Pilean Euskara Elkarte</li> <li>• Auzoko proiektua</li> <li>• Kukumixo</li> <li>• ...</li> </ul>
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuak lan talde propioa bat izan beharko luke, proiektuari motibazioz begiratu eta heltzen diona.</li> <li>• Horrekin batera, proiektuan parte hartuko luketen talde eta kideei begira koordinazio lan garrantzitsua ere egongo litzateke. Beraz, koordinatzaile bat, proiektua garatu eta martxan jartzeko</li> <li>• Agian, hasiera batean, hezkuntza sortzailean formakuntza daukan norbaiten laguntza ere bai. (Gure herriko talde, eragile eta aukeretara egokitzea ezinbesteko oinarria izanda)</li> </ul>

PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
<p><b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b></p>	<p>Proiektu potoloa da, baliabide ekonomiko asko eskatzen duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tailar ezberdinak antolatzea 10000 euro</li> <li>• Koordinatzailearen kostua 5000 euro</li> <li>• Proiektuaren diseinua 5000 euro</li> <li>• Lokala eskuratu eta egokitu ? euro</li> <li>• Urteroko mantenimendu aurrekontua 5000 euro</li> </ul> <p>Diru-laguntzak eskatzea baloratu beharko litzake. <a href="http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/dirulaguntza/2015/sl_ikertu/r43-573/eu/">http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/dirulaguntza/2015/sl_ikertu/r43-573/eu/</a></p> <p>Udalaren edo bestelako erakundearen diru sarreraz gain, interesgarria litzake partaideek ekarpen ekonomikoa egitea, seriotasuna emango lioke proiektuari... (baina hor oso garrantzitsua litzateke, DANONDAKO aukera ematea, hau da, ez dadila inor geratu proiektuan parte hartu gabe egoera ekonomikoagatik).</p>
<p><b>EPEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 eskaintza handitzeari begirako aukerak aztertu eta plangintza egin (arte eszenikoak + arte plastikoak + helduentzat kurtsoak)</li> <li>• 2017-2018 eskaintza martxan jarri</li> <li>• 2018-2019 Proiektuaren (sormen eta jabekuntza eskola) proposamena garatzeko lan taldea sortu + diseinua + eragileekin landu + zabaldu</li> <li>• 2020 Azpiegitura bilatu. Plan orokorrari jarraipena+ Herriko tailerra(k) auzolanean baliatzen hasi</li> <li>• 2021 ezarpen fasea</li> </ul>



PROIEKTUA	SORMEN TALLARRA (Sormen eta jabekuntza eskola)
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Berdean Hezi, haurrak naturara hurbiltzeko ideiak</i> (Heike Freire, Txatxilipurdi 2015)</li> <li>• Donostia 2016.</li> <li>• Arte eskola, sormen lantegi: <a href="http://busturialdea.hitza.eus/2015/09/18/arte-eskola-sormen-lantegi/">http://busturialdea.hitza.eus/2015/09/18/arte-eskola-sormen-lantegi/</a></li> <li>• Hezkuntza sortzailea:             <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ <a href="http://www.argia.eus/blogak/nora-barroso/2014/01/07/hezkuntza-sortzailea/">http://www.argia.eus/blogak/nora-barroso/2014/01/07/hezkuntza-sortzailea/</a></li> <li>◦ <a href="http://www.tallerra.com/public_contenido/ctrl_contenido.php?accion=educacion&amp;lang=eu">http://www.tallerra.com/public_contenido/ctrl_contenido.php?accion=educacion&amp;lang=eu</a></li> </ul> </li> <li>• Proiektu zehatz bat Educarte (Sevilla)             <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ <a href="http://www.educartesevilla.es/proyecto-educativo/el-dia-a-dia-en-educarte/">http://www.educartesevilla.es/proyecto-educativo/el-dia-a-dia-en-educarte/</a></li> </ul> </li> <li>• Beste proiektu bat             <ul style="list-style-type: none"> <li>◦ <a href="http://www.berria.eus/paperekoa/1845/048/001/2015-09-29/adimen_batzuk_ez_dira_lantzen_eskolan.htm">http://www.berria.eus/paperekoa/1845/048/001/2015-09-29/adimen_batzuk_ez_dira_lantzen_eskolan.htm</a></li> </ul> </li> </ul>

### 3.9 – HAURREN HERRIARI EKIN

PROIEKTUA	HAURREN HERRIARI EKIN
<b>DEFINIZIOA</b>	<p>Soraluzeko jolasgune eta parke erduen inguruko hausnarketa eta beharrez gero, eraldaketa bideratzeko ekimena.</p> <p><i>Dena dela hausnarketa orokorra hasi aurretik, aurten bertan hainbat aktuazio egin behar direla uste dugu. Haur eta gazteekin hainbat saio egin dira eta dagoeneko beraiek egin dute hasierako hausnarketa bat eta proposatu dituzte hainbat aldaketa. Beraien erritmoak ezberdinak dira, ilusio asko jarri dute egin ditugun saioetan eta lehenbailehen erantzun bat eman behar zaiela uste dugu. Gazteentzat, parke baten pentsatzen hasi behar dugu eta haurrentzat, estazio eta ikastetxe arteko jolasgunean, beraien partehartzearekin moldaketa bat egitea proposatuko dugu.</i></p>
<b>HELBURUAK</b>	<p>Hirigintza erduaren eta batez ere jolas parke erduen inguruko hausnarketa sortzea.</p> <p>Herria “herri hezitzaile” bihurtzea, herria espermentaziorako, sormenerako eta jolaserako gune bihurtuz, pertsonaren garapena ahalbidetzeko.</p> <p>Herriak jolaserako aukerak eskainiko dituela bermatzea.</p> <p>Sormenerako eta espermentaziorako guneak egokitzea edota oraingo jolasguneak norabide honetan atontzea.</p> <p>Haur eta gazteen parte hartzea sustatzea eta hauengan ingurunearekiko errespetuko kontzientzian eragitea. (Haurrek proposamen zehatzak dituzte: parke desberdinak irudikatzen dituzte, haur txikienentzako aukera egoteaz gain nagusienentzako aukerak emango dituenak. Sokaz betetako parkeak, tirolina zein txirrista handiak. Naturarekin kontaktua izatea ere garrantzitsua da eurentzat. Proiektu hau oso garrantzitsua da beraientzat.</p> <p>(Gazteentzat aldiz ez dago parkerik. Skate park, sokak eta intimitatea nahi dute.) Oinherriko txostenean daude jasota</p>

PROIEKTUA	HAURREN HERRIARI EKIN
<b>PARTEHARTZAILEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala (hirigintza)</li> <li>• Haurrak eta gazteak</li> <li>• Guraso eta familiak</li> <li>• Hezkuntza ez formaleko eragileak: Ludoteka, Kukumixo</li> <li>• Hezkuntza formala (profesionalen ekarpena interesgarria izan daiteke)</li> <li>• Herritarrak</li> </ul>
<b>ERAGINA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrengan</li> <li>• Guraso eta familiengan</li> <li>• Herriarengan eta herritarrengan (herri hezitzailearengan)</li> </ul>
<b>EKINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Azterketa/Diagnostikoan haur eta gazteek parte hartuko badute ere, orain arte egin dituzten proposamenak kontutan hartu beharko dira. Oinherri txostenean daude)</li> <li>• Helduek ere egin dituzte proposamen gutxi batzuk: ingurunearekin kontaktua duten guneei bide emate, tirolina parkea mendiko lursail batean jartzea (Arrasate – Aretxabaleta bidean, errepidearen ondoan dagoen antzera), udan, urarekin jolasteko parkea (Markina dagoen antzera) eta piztina kanpoan jartzea, berdeguneetan txakur kakak kontrolatzea.</li> <li>• Behin azterketa edo diagnostikoa eginda, ondorioekin ekintzak zehaztu beharko dira.</li> </ul>

<b>PROIEKTUA</b>	<b>HAURREN HERRIARI EKIN</b>	
<b>LANTZEN DIREN PRINTZIOAK</b>	Zuzena: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jolasa</li> <li>• Parte hartzea (haurrena batez ere)</li> <li>• Gaitasunak</li> <li>• Sormena</li> </ul>	Zeharka: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Inklusioa</li> <li>• Elkarbizitza</li> <li>• Euskara</li> <li>• Hezkidetzak</li> <li>• Kulturartekotasuna</li> <li>• Iraunkortasuna</li> </ul>
<b>SINERGIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala (hirigintza eta haur eta gazte batzordearekin)</li> <li>• Hezkuntza ez formaleko eragileekin.</li> <li>• Guraso elkarteekin</li> <li>• Eskolekin</li> </ul>	
<b>GIZA BALIABIDEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan taldea propioa beharko du eta prozesuaren gidaritza eta ardura hezkuntza ez formaleko eragileek, Ludoteka eta Kukumixok</li> </ul>	
<b>BALIABIDE EKONOMIKOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2016 Gazteentzat parke baten pentsatzen hasi eta haurrekin estazioko parkean hainbat aktuazioa burutu. 5000 eu</li> <li>• 2017 Kukumixoren kostua. 3000 euro</li> <li>• 2018 egin beharreko aktuazioen arabera. ? Euro</li> <li>• 2019 egin beharreko aktuazioen arabera. ? euro</li> </ul>	

PROIEKTUA	HAURREN HERRIARI EKIN
<b>EPEAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2017 hausnarketa + diagnostiko/azterketa + ondorioak</li> <li>• 2018 ondoriok aztertu eta aktuazioak egitea</li> <li>• 2019 aktuazioak egitea + Jolasarekin Hezkuntza Plazara (“Haurren Herriari ekin” ospatzeko eguna ere izan daiteke)</li> </ul>
<b>LOTURA ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Francesco Tonucci-ren <i>Haurren Hiria</i>.</li> <li>• Hik Hasi-ren 27. monografikoa <i>Herri Hezitzailea Eskola Herritarra</i>.</li> <li>• Heike Freire-ren <i>Berdean Hezi</i></li> </ul>



## Kudeaketarako proposamena

### COORDINATZAILEA

- Proiektuaren ikuspegi osoa izango duena.
- Proiektuaren ardura nagusia izango duena eta norabide orokorraren garatea
- Proiektua koordinatuko duena.
- Koordinazio lan taldeko arduraduna.
- Hezkuntza Batzordea eta Hezkuntza Mahai dinamizatuko dituena.

### HEZKUNTZA MAHAIA

- Proiektuaren jarraipen eta baloraziorako gunea zabala.
- Organo kontsultiboa. Helburu orokorren inguruko erabakiak bertan kontsultatuko ditu HBak.
- Hezkuntza eragile zein norbanakoez osatutako gunea zabala.
- Urtean behineko maiztasuna.

### HEZKUNTZA BATZORDEA

- Erabaki, jarraipen eta baloraziorako gunea.
- Orain arteko talde eragilea ordezkatzeko duena
- Prozesuaren garante eta bultzatzailea.
- Helburu orokorren gainean erabakirik hartu behar badira HMra proposamenak eramango dituena kontsulta egiteko.
- Urtean behin HM deituko duena proiektuaren berri eman eta balorazioa egiteko
- Hezkuntza eragileek osatzen duten udaleko gunea.
- Hiru hilabeteroko maiztasuna.

### KOORDINAZIO LANTALDEA

- Proiektuaren ardurandunetz osatutako lan taldea.
- Proiektuaren jarraipen zuzena egingo duen gunea.
- Egunerokotasunari aurre egingo dion gunea.
- Hilebeteroko maiztasuna.

### PROIEKTUAK

1. Eskola Bidea
2. Zelan hezi, holan hazi
3. Eskola Herritarra
4. Eskutik eskura
5. Aukeran Danok
6. Jolasarekin Hezkuntza Plazara
7. Soraluze Bizi, Soraluze izan
8. Sormen Tallarra
9. Haurren herriari ekin

### ARDURADUNAK

1. GURASOAK + LT
2. COORDINATZAILEA + LT
3. TEKNIKARIA
4. HERRITARRAK + LT
5. TEKNIKARIA
6. LUDOTEKA – KUKUMIXO + LT
7. HERRI IDENTITATEA + LT
8. KULTURA BATZORDEA
9. LUDOTEKA – KUKUMIXO + LT

### UDAL BATZORDEAK

1. Hirigintza - Hezkuntza
2. Hezkuntza
3. Hezkuntza
4. Hezkuntza
5. Hezkuntza - Ongizate
6. Hezkuntza – Haur eta Gazte
7. Hezkuntza
8. Kultura
9. Haur eta Gazte - Hirigintza

Aldi berean udaleko  
Batzorde ezberdinekin  
harreman zuzena  
izan beharko dute

## KUDEAKETA EGITURAREN OINARRIAK:

Kudeaketak ere proiektuaren filosofiarekin bat egitea; norbanako zein herriko eragileen parte hartzea bermatuz eta guneak herritarren eskura jarritz.

Egun dauden guneak errespetatzea eta bikoizketak saihestea.

Foro ezberdin eta udal batzordeen arteko harremana ziurtatzea, udalak, proiektu guztien berri izateko eta proiektuek, udalaren bitartekoak eskura izateko

Harreman hau ezartzeko logika honakoa da; Proiektuaren helburu nagusia (berezkoa) heztea bada Hezkuntza Batzordearekin ezarriko da harremana. Aldiz, proiektuaren helburua nagusia ez bada heztea (zeharkakoa) harremana dagokion sailarekin ezarriko da.





## 5. GIZA BALIABIDEAK: KOORDINATZAILE PROPOSAMENA

Dagoeneko Hezkuntzak badu Herri Proiektua eta hau garatzeko tresna izango den plan propioa. Erronka handia den eanean apustua tamainakoa behar du izan. Beraz, abagune egokia izan daiteke udalak apustu sendoa egin eta Hezkuntza Teknikari baten postua sortzeko. Gaur egun arloak badu teknikaria, baina beste sail, plan eta funtzio batzuekin uztartzen du bere lanaldia. Aurreikusi daiteke ez zuela nahiko dedikazio izango gaur egun Hezkuntza Proiektuak Hezkuntza Arloaren barne eskatzen dituen funtzio eta ardurak betetzeko. Honenbestez, dedikazio haundiagoa eskaintzeko aukera emango duen lan postua sortzea proposatzen da. Beste batzuren artean, bere funtzio nagusia **Herrixak Hezi!** proiektua garatzea izango da.

Bete beharreko baldintzez (titulazioa, formakuntza, hizkuntza eskakizunak, esperientzia, etab.) gain oso garrantzitsua da figura honek izan beharko lukeen profila zehaztea. Hona hemen kontutan hartzeko hainbat ezaugarri:

- Dinamizazio, koordinazio eta harremanetarako gaitasuna
- Proiektuen diseinuan eta gauzatzean eskarmentua
- Etengabeko balorazio eta berrikuspenerako konpetentzia
- Ikuspegi kritikoa
- Soraluzeko ezagutza, baita Hezkuntza Proiektukoa
- Gizarte konpromisorako jarrera aktiboa
- Parte-hartzean aditua eta aritua
- Euskara sustapenean aditua
- Berdintasun eta hezkidetzan aditua eta aritua
- Teknologia berrietan eta sare sozialetan aritzeko abilezia

Hautaketa egokia egiteko, balorazioan ezinbesteko izango da ezaugarri hauek hauteman ditzaketen probak diseinatzea edota titulazio eta ziurtagiriak eskatzea.



## 6. KRONOGRAMA

PROIEKTUAK	2016	2017	2018	2019	2020
<b>SORALUZE BIZI, SORALUZE IZAN</b>					
Gaiak adostu	█	█	█	█	█
Diseinua egin	█	█	█	█	█
Unitateak eskuragarri	█	█	█	█	█
<b>ESKOLA BIDEA</b>					
Diagnostikoa/azterketa + neurriak	█	█	█	█	█
Proiektu pilotoa + neurria	█	█	█	█	█
Ezarpen fasea	█	█	█	█	█
<b>ZELAN HEZI, HOLAN HAZI</b>					
Diagnostikoa + ondorioak	█	█	█	█	█
Plangintza + neurriak (formakuntza adibidez)	█	█	█	█	█
Ezarpena	█	█	█	█	█
<b>ESKUTIK ESKURA</b>					
Kontaktuak egin + proiektua diseinatu	█	█	█	█	█
Bolondres taldea osatu	█	█	█	█	█
Ezarpena	█	█	█	█	█

PROIEKTUAK	2016	2017	2018	2019	2020
<b>HAUREN HERRIARI EKIN</b>					
Hainbat aktuazio (estazioko parkean + gazteentzat espazio bat)					
Hausnarketa + Diagnostikoa/azterketa + ondorioak					
Aktuazioak					
<b>AUKERAN DANOK</b>					
Irizpideak adostu					
Laguntzak banatu					
<b>SORMEN TALLARRA</b>					
Sormen taiterrak plangintzatu					
Eskaintza martxan jarri					
Lan taldea sortu + diseinua + eragileekin landu + zabaldu					
Azpiegitura bilatu					
Ezarpen fasea					
<b>ESKOLA HERRITARRA</b>					
Urtero plangintza egin					
Ezarpen fasea					

**JOLASAREKIN HEZKUNTZA PLAZARA**





## 7. AURREKONTUA

ARLOA	2016	2017	2018	2019	2020	GUZTIRA
Hezkuntza	3.000	23.000	36.000	33.000	28.000	123.000
Hirigintza	0	5.000	5.000	5.000	0	15.000
Haur eta Gazte	10.000	3.000	*	*	0	13.000
Kultura	0	10.000	10.000	*	5.000	25.000
AURREKONTUA	13.000	41.000	51.000	38.000	33.000	176.000
GUZTIRA						

\* Azterketa eta diagnostikoek esango dute zenbateko inbertsioa egin beharko den.





## 8. ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA

<b>Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoa 2014-2018</b>		
<b>Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aiton-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
Eleaniztasunaren onurak azaltzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Guraso euskaldunak eta ikasten ari direnak edo euskara praktikatu nahi dutenak harremanetan jartzeko “Gurasolagun” ekimena antolatu.</li> <li>Gurasoentzako euskalduntze-alfabetatze eskolak antolatu.</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
<b>Familia barruan euskararen erabilera sustatzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktu eta baliabideak ezagutarazi eta eskura jartzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gurasoentzako saio erakargarriak antolatu euskaraz: haurrak nola hezi, euskal kankak, jolasak</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
<b>Euskararen jakite-maila eta erabilera hobetzeko prestakuntza sendotu eta metodologia eta baliabide berriak garatzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleen komunikazio gaitasuna sendotzeko asmoz, ahozko hizkuntza jarduna lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasgai desberdinetan irakurmenaren eta idazketaren jarduerak ekoiztu.</li> <li>Euskarazko erregistro informala lantzeko “Lagun arteko hizkerarekin jolasean” tailerra antolatu.</li> <li>Bertsolaritzaren bitartez ahozkotasuna lantzeko “ Gu ere bertsolari” programa aurrera eraman.</li> <li>Euskarazko produkzioa sustatu eskolako iratiaren bitartez.</li> <li>Bertso eskolaren lana sustatu eta diruz lagundu.</li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakasle eta langile ez</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntza gaitasuna eta euskal kulturaren inguruko prestakuntza</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3.

irakasleen euskararen maila gaurkotzea	<p>jasotzea (irakasleei)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxean euskararen erabilpena sustatzeko formazioa eskaini irakasleei.</li> </ul>	eranskina
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrak euskarazko irakaskuntzaren aldeko hautua egiteko sentiberatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>UEUK antolatzen dituen ikastaroen berri eman eta bertan parte hartzeko dirulaguntzak bideratu.</li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera
<b>Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparran aztertu eta bultzatzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza proiektuko helburuak normalizazioaren xedeekin uztartu eta hizkuntza irizpideak txertatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza proiektuan hizkuntza irizpideak txertatu.</li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua gauzatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>PLHI ikastetxeko Hizkuntza Proiektua prestatu.</li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman-hizkuntza gisa bultzatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jangelako begiraleentzat jolas eta kantu ikastaroak antolatu.</li> <li>Jangelako begiraleei hizkuntza-kudeaketari buruzko estrategiak ikasteko ikastaroak antolatu.</li> <li>Jantokiko begiraleek eguerdiko aisialdian jolas desberdinak ikasleekin praktikan jartzea.</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeak antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera haunditzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>“Euskara Zine Aretoetara” programa antolatu, eskola orduetan euskarazko zinea ikusteko.</li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera

<b>Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Astean zehar haurrentzako euskarazko jarduerak antolatu (Ludoteka).</li> <li>Asteburuetan gaztetxoentzako euskarazko jarduerak antolatu (Gaztetxokoa).</li> <li>Asteburuetan haurrentzako euskarazko jarduerak antolatu (Domekak aterpean).</li> <li></li> </ul>	Koordinatzaileak egin jarraipena Euskara teknikariakin batera
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisialdi taldeekiko lankidetza bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Helduentzako euskarazko era guztietako ikastaro eta ekimenak antolatu (Sukaldaritza, dantza...).</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
<b>Begiraleen prestakuntza sendotzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisialdiko begiraleen hizkuntza profilak eta hizkuntza kudeaketarako gaitasuna hobetzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aisialdiko hezitzaileentzako hizkuntza kudeaketaren arloko formaziorako ikastaroa antolatu.</li> </ul>	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
<b>Udalerriko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko toponimia datu-basea zuzendu, eguneratu,</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerriko toponimia gizarteratzeko web-orria eta unitate didaktikoak sortu</li> </ul>	“Soraluze bizi, soraluze izan” 7.

osatu eta zabaltzea		proiektua
<b>Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herriko euskalkia ikastetxeetan lantzeko unitate didaktikoak sortu.</li> <li>Euskarazko erregistro informala lantzeko “Lagun arteko hizkerarekin jolasean” antolatu</li> </ul>	<p>“Soraluze bizi, soraluze izan” 7. proiektua “Eskola Herritarra” 3. proiektua</p>
<b>Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea</b>		
<i>Neurria</i>	<i>Ekintza</i>	<i>Nola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikazio estrategiak garatzea: zabalkunde kanpainak, gidak, eskuliburuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Teknologia berriak erabiltzeko ikastaroak antolatzea (twitter, twenty, facebook...) euskaraz jasotzeko aukera bermatzea eta erabiltzaileak tresna hauek euskaraz erabiltzeko trebatzea.</li> </ul>	<p>“Eskola Herritarra” 3. proiektua</p>

## 2. ERANSKINA

Soraluzeko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Plana		
Helburua	Ekintza	Nola
Pertsonal tekniko eta politikoari formakuntzaren inguruko baliabideak ematea	Gaztelekuko, ludotekako, liburutegiko, aisialdiko eta kirol lantaldeei berdintasun inguruko formazioak eskaini hauek bertako plangintzan genero ikuspegia txertatu dezaten, eta gazteekin egunerokotasunean ere berdintasuna lantzen joateko.(2015) Herriko kultur, guraso, kirol elkarteei genero ikuspegia txertatze aldera formazioa eskaini, adierazleak espresuki landuz (2016)	“Eskola Herritarra” 3. proiektua
Sektorekako eta zeharkako planetan genero ikuspegia txertatzea.	Hezkuntza maiatik, genero ikuspegia txertatzeko Soraluzeko institutuari, aholkularitza, laguntza eskaini beraien berdintasun plana lantze horretan. Plaentxi LH-ko ikastetxeari beraien berdintasun plana garatzen lagundu. Genero ikuspegia nola txertatu EPArekin batera landuz joan beraiekin bertan sexuak segregatuak egotearen arrazoia ezagutu eta lantzen joateko	Koordinatzaileak egin jarraipena Berdintasun teknikariarekin batera
Neska gazteen ahalduntze eta balioen aldatze prozesuak sustatzea	Guraso eskolan; gurasoentzako formazio programan, hezkidetza lantzen duten saioak txertatu. Eskolekin harremana mantendu eta bide batez indartu hezkidetza haien heziketa proiektuan aurrera pausoak ematen joateko Hezkidetzaileak diren material ez sexistak elkar banatu eskolarekin, liburutegiarekin, ludotekarekin, gaztelekuarekin Institutuko 3. mailakoei sistematikoki sexu aukeraren eta genero nortasunaren aniztasuna errespetatzen irakasteko sentsibilizazio hitzaldiak eskaini Berdinu-Gehitu-Aldarte elkartearen bitartez. Ikasleei eta irakasleei hezkuntza komunitateari. Eskolak animatu eta bultzatu, emakumeentzat funtsezkoak diren egunak ospatzeko; hala nola martxoak 8 (Emakumeen Nazioarteko Eguna), azaroak 25 (Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko	“Eskola Herritarra” 3. proiektua  Koordinatzaileak egin jarraipena Berdintasun teknikariarekin batera

	Eguna)). Adibidez; egun horietan eskolara morez jantzita joanez, unitate didaktikoak landuz.		
Emakumeen autonomiaren garapena, genero kontzientzia eta balioen aldaketa bultzatzea	Herriko itzaropena jubilatuta elkarrekin hitzaldia antolatu berdintasunaren gaia lantzeko (ardura postuak) Emakumeen autoestimua lantzen duten ikastaroak antolatu emakumeen negoziario gaitasuna enpresa esparruan handitzeko helburuarekin. “Emakumeak Industriara erakartzen” proiektua berriro Soraluzeko institutoan martxan jartzea baloratu. Emakumeen ahalduntzea sustatzera bideraturiko programa bat diseinatu eta martxan jarri (Ahalduntze-eskolen antzera) ikastaro, hitzaldi, erakusketa, eta abar..., antolatuz Soraluzeko gizonentzako maskulinitate ereduaren inguruko hitzaldi eta saioak antolatu.	“Eskola Herritarra” proiektua	3.
Emakumeak bere osasun eta sexualitatearen inguruan erabakiak hartzea bultzatu	Emakumeei zuzendutako sexualitate tailer bat genero eta plazerraren ikuspegitik antolatzea baloratu emakumeen Topagunearekin batera	“Eskola Herritarra” proiektua	3.
Emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea eta horren inguruko sentsibilizazioa garatzea	Soraluzeko institutua eta gaztetxokoa Beldur Barik programako unitate didaktikoak landu ditzaten animatzen jarraitu Plaentxiko LH. ko 6.mailakoei sistematikoki sexu heziketa eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko programa eskaini. DBHko 4.mailako mutilen maskulinitate tailerrak sistematikoki eskaintzearekin berriro hasi.	“Eskola Herritarra” proiektua	3.

### 3. ERANSKINA

## SORALUZeko HEZKUNTZA PROIEKTUA

### ETORRI BERRIEKIN PROIEKTUAK KONPARTITZEN

LEKUA	HHI	DATA	17/02/16
HASIERA ORDUA	10:30:00	IRAUPENA	90´

### ASISTENTZIA

Asistentzia	31	12 emakumezko	19 gizonezko
Hezkuntza proiektutik	2		
HHIko irakaslea	1		
Itzultzailea	1		

### AKTA

- Sarrera.

Bileraren helburuak azaltzen ditugu. Herri mailako Hezkuntza Proiektuen inguruko iritziak eta ekarpenak jasotzera gatoz. Hizkuntz irizpideak honakoak dira: Gehienbat gazteleraz azalduko dugu baina euskaraz ere sartuko ditugu aipamen batzuk



(sarrera, proiektuen izenak). Euskarrietan euskara dago lehenetsita. Itzultzailea era badugu (euskara-arabierara) beraz nahi badute beraien hizkuntzan aritzeko aukera daukate eta guk gurean.

- Hezkuntza proiektuaren ibilbidea azaldu ondoren proiektu konkretuak azaltzen ditugu. Hauek lirake azaltzen ditugunak: (kalitatezko informazioa lortze aldera 12tik 5 konpartitzea erabakitzen dugu, herritar eta etorri berri moduan izan dezaketen ikuspuntua eta partehartzea kontutan izanda alde batetik, eta beraiengan proiektu hauek izan dezaketen eragina kontutan izanda bestetik.)

Soraluzen Hazi eta Ikasi

Beka sistema

Auzoko eskolan

Eskola Herritarra

Hezkuntza Plazara

- Parte hartze dinamika honakoa litzake. Proiektu bakoitza kartulina batean azaduta dute, argazki eta definizio batekin. Ondoren 3 zutabe dituzte post-it bidez betetzan joateko. *Gustoko duzu? Iritzi edo proposamenik duzu? Parte hartuko zenuke?* Galderei erantzun beharko diete. Borobilean eta modu zabalean proiektuak aztertzeari ekiten diote. Beraien ekarpenekin Post-it-ak guk betetzen ditugu eta kartulinetan itsasten goaz.
  - Eskola Herritarra. Emakumeak elkartzeko interesgarria eta garrantzitsua iruditu zaie.
  - Soraluzen Hazi eta Ikasi. Beraien seme alabengan euskararen erabilera eta ezagutzan langundu dezakeen egitasmoa dela diote.
  - Auzoko Eskolan. Auzokok ez duela lokal egokirik eta horren kexu dira. Astero aldatzen omen dutela. Bestetik auzokoren orduak gehitzea nahi dituzte.
  - Beka Sistema.
    - HHI Bergaran egin behar dutenei garraiorako dirulaguntzak ematea.
    - Eskolako irteetarako dirulaguntzak eskeintzea.
    - Kirol ekintzetarako (pizina adibidez) dirulaguntzak ematea.
    - Futbol zelaia alokatzeko laguntzak edo hobariak ezartzea.

- Jantokiko beka sistema nola kudeatzen den ez dute ondo ikusten, dirua aurreratu behar omen dute ondoren, kurtsu bukaeran jasotzeko aurreratu duten dirua. Gainera beka ez die urte guztiko jantoki zerbitzua kubritzen. Hilabete pare bat geldituko lirake kanpoan.
- Proiektuekin harremanik ez duten gaiak ere aipatu dituzte:
  - Euskara nun ikasi eta nola. Aukera ezberdinak azaldu zaizkie. HHI eta AEK helduentzako izan daitezke. Haurrentzako, eskolaz gain Hazi eta Ikasi proiektua ere aukera bat izan daiteke.
  - Herrian kirol ezberdinak praktikatzeko aukera murrizak. Badminton eta kriketa adibidez. Udaletxean eskaera egitea gomendatu zaie.
  - Jantokiko menuak ez dituzte ondo ikusten. Musulmanentzat begetarianoa jartzen omen dute eta ondorioz ez dute arraina jateko aukerarik. Hori aldatzeko presioa egitea eskatzen dute.
- Ondoren eskua altxatuz egiten dugu proiektuen puntuaketa. Beka sistema eta Hazi eta Ikasi dira gusotokoen. Bigarren maila baten Hezkuntza Plazara eta Auzoko eskolan.
- Hamaiketako eginez giro onean bukatzen dugu. Beraiek egindako janaria jaten dugu.
- Balorazioa:
  - Asistentzia oso ona. EPAko Arantzaren bitartez eta eskolan pasatako gutun (euskeraz, gazteleraz, urduz, errumanieraz, eta arabieraz idatzitako testua) baten bitartez egin da lanketa. Emaiza oso onak eman ditu lanketak.
  - Ez dugu aurkezpenik egin eta ez dugu saioaren balorazio formalik egin.
  - Dinamika moldatu behar izan dugu, dena dela parte hartzea ona izan da.
  - Orokorrean balorazioa oso ona da. Batzarraren helburuak bete ditugulakoan gaude.
  - Kolektibo honekin sarritan gertatzen da oso behar bereziak dituztela, premiazko beharrianak, eta hoiengandik inguruan aritzeko joera dutela. Saioa Hezkuntza Proiektuetan zentratzen saiatu gara.
  - Etorkizunean harremanetan izateko izen eta kontaktu guztiak jaso ditugu.

SORALUZeko HEZKUNTZA PROIEKTUA

ADINEKOEKIN PROIEKTUAK KONPARTITZEN

LEKUA	Itxaropena	DATA	11/02/16
HASIERA ORDUA	10:30:00	IRAUPENA	90´

ASISTENTZIA

Jubilatuen elkartetik	9	4 emakumezko	5 gizonezko
Hezkuntza proiektutik	2		
Alkarritik	1		
		Kontaktua Txaro Lete	Etorkizunean Rosa Oruesagasti

AKTA

- Sarrera.

Bileraren helburuak azaltzen ditugu. Herri mailako proiektuen inguruko iritziak eta ekarpenak jasotzera gatoz. Bai Hezkuntza proiektuaren inguruan zein Alkarri proiektuaren inguruan.

Hizkuntz irizpideak honakoak dira: bi hizkuntzatan azalduko dugula eta zalantzarik izanez gero galdetzeko nahi duten hizkuntzan eta hizkuntza hoietan erantzungo zaiela. Azkenean azalpenetan luzatzen garenez gazteleraz bakarrik eginez bukatzen dugu

- Bi proiektuak orokorrean azaldu ondoren proiektu konkretuak azaltzen ditugu. Hauek lirake Hezkuntza Proiektuaren baitan azaltzen ditugunak: (kalitatezko informazioa lortze aldera 12tik 5 konpartitzea erabakitzen dugu, herritar eta adineko moduan izan dezaketen ikuspuntua eta partehartzea kontutan izanda alde batetik, eta beraiengan proiektu hauek izan dezaketen eragina kontutan izanda bestetik.)

Soraluzen Hazi eta Ikasi  
Herri ondarea zabalduz  
Eskola Bidea  
Eskola Herritarra  
Hezkuntza/Jolasa plazara

- Parte hartze dinamika honakoa litzake. Proiektu bakoitza kartulina batean azaduta dute, argazki eta definizio batekin. Ondoren 3 zutabe dituzte post-it bidez betetzan joateko. *Gustoko duzu? Iritzi edo proposamenik duzu? Parte hartuko zenuke?* Galderei erantzun beharko diete.

Ez dira animatzen dinamika egitera baina borobilean proiektuak komentatzeari ekiten diote.

- Denak dituzte gustoko eta beharrezkoak.
- *Eskola bidearekin* haurra bakarrik joatera galarazten duen legerik dagoenaren kezka dute. Ondo begiratzeko iradokitzen digute. Gainontzean oso ondo ikusten dute. Beraien seme alabak horrela joaten zirela eskolara eta horra bueltatzea litzakela. Hausnarketa bat egiten dute, lehen normala eta naturala zena orain proiektu baten bitartez egin beharra dagoela eragile ezberdinak hortara bultzatzeko.
- Batzuk euskera ez dutela gainditzen eta ondorioz beraien parte hartzea mugatu ikusten dute. Erantzuten zaie proiektuak integratzaileak direla eta ez baztertzailak. Hizkuntzarena ez dela arazo edo muga bezala hartu behar, hori gainditzeko tresnak jarri behar ditugula baizik.

- *Hazi eta ikasirako* prest leudekela baina prefil konkretua behar dela eta again ez dutela beraien burua gai ikusten.
  - Herri ondarea zabalduz oso interesgarria eta beharrezkoa ikusten da.
  - Edozeinetan parte hartzeko borondate osoa adierazten dute, baina guk esateko zertan, gure esanetara daudela.
  - Jubilatuetan modu zabalean aurkeztea ere egoki ikusten dute, hori bai informazio gutxiagorekin eta metodologia egokiarekin.
- Hamaiketako eginez giro onean bukatzen dugu.
  - Balorazioa:
    - Asistentzia oso ona. Deitutako guztiak etorri dira.
    - Ez dugu aurkezpenik egin eta ez dugu saioaren balorazio formalik egin.
    - Dinamikarekin ez dugu asmatu. Esaten digute ez daudela ohituta horrelako dinamiketara eta lan talde txikietan aldiz erosoago ematen dutela iritzia.
    - Orokorrean balorazio ona. Batzarraren helburuak bere osotasunean bete ez baditugu ere (proiektuen leheneste bat), Proiektuaren berri badute eta etorkizunean beraien parte hartze zehatz baten bila bagoaz bide erdia egina daukagu.

## SORALUZeko HEZKUNTZA PROIEKTUA

### TALDE ERAGILEA

LEKUA	Udaletxea	DATA	01/12/15
HASIERA ORDUA	10:00	IRAUPENA	120'

### ASISTENTZIA

Naiara (Kukumixo)	x	Nagore (Udala)	13:30ean egiten dugu
Elena (Istitutua)	x	Mikel (Udala)	x
Arantza (Eskola)	x	Hiart (Urtxintxa)	x
Oinatze	x	Ainhoa	x

### AKTA

- Aurkezpena
- *“Plan Estrategikoa. Prozedura, Irizpideak eta Kronograma”* dokumentua konpartitzea eta ekarpenak jasotzea.

Irizpideak adosterakoan, Mikelek (udal teknikariak) proposatzen du gainontzeko eragileen proiektuak ere kontutan izatea, herriko proiektura egokitu behar diren jakiteko edota herriko proiektuan ez errepikatzeko. Lan hau egiteko eragileek beraien proiektuak bideratuko dizkiote Hiarti. Arantzak (Lhko zuzendariak) aipatzen du lan handia izango dela guztia kontuan hartuta Herriko Plan estrategikoa zehaztea, taldekideak ere bat datoz, baina Hiartek saituko dela adierazten du.

Mikelek, irizpideen artean garrantzia eman nahi izan dio zeharlerrokotasunari eta aukeratutako proiektuek ahalik eta ezaugarri gehien lantzea komenigarria dela aipatzen du.

Nagorek (udal ordezkariak), ditugun baliabideak kontutan izanda, urtean egin beharreko proiektu eta ekintzen kopurua neurtzearen beharra adierazten du. Hau irizpideetan gaineratzea proposatzen du

Lanketa berezia egin behar dugun kolektiboaren arira, haur eta gazteekin egin behar den saioari begira, Naiarak (Kukumixoko ordezkariak) aurreko faseako proposamenak lantzeko ardura hartzen du.

Ez euskaldun eta etorri berrien lanketarako auzoko programako arduradunarekin harrremanetan jartzea proposatzen du Naiarak.

Hirugarren adinekoekin lanketa egiteko, Mikelek ongizateko tekniakiarekin egotea proposatzen du.

Kronograma aztertzerakoan, aratusteak eta aste santuak kontutan izateko eskatzen dute talde kideek.

- Ludoteka eta Gaztetxokoaren egokitzapena Hezkuntza Proiektura.
  - Puntuaren redakzioarekin ados ez dagoela aipatu ondoren, Mikelek gaiaren azalpen zabal bat ematen du. Ludoteka eta Gaztetxokoa berplanteatzearen beharra dagoela eta hori noiz, nola eta zeinek egingo duenaren bere iritzia ematen du. Gairen inguruan aritzen dira taldekideak eta hainbat zalantza aireratzen dira. Ia Hezkuntza proiektuarekin lotura izan behar duen hausnarketa honek? Ia talde motorrak gidatu behar duen? Ia beste foro bat sortu behar den? Ia noiz egin behar den?
  - Zeharka beste zalantza batzuk ere sortzen dira. Ia haur eta gazteen batzordeak ze helburu dituen? Ia ikastetxeak hor parte hartu behar duten? Ia ludoteka zergaitik ez dagoen hezkuntza batzordean?
  - Ez da ezer erabakitzen eta Hiartek proposatzen du Urtxintxari eskatzea iritzia eta aholkua.
- Norberak lekarkeena.
  - Oinatzek (gurasoen ordezkariak) aipatzen du abenduan, LOMCE ren inguruko hitzaldi bat antolatu nahi dutela eta Hezkuntzako Plataformen Topaguneko kide bat etorriko dela. Hitzaldiaren data zehatza jakinaraziko duela aipatzen du.

## SORALUZeko HEZKUNTZA PROIEKTUA

### TALDE ERAGILEA

LEKUA	Udaletxea	DATA	29/01/16
HASIERA ORDUA	10:00	IRAUPENA	135'

### ASISTENTZIA

Naiara (Kukumixo)	x	Nagore (Udala)	Otsailaren 3an batu gara
Elena (Istitutua)	x	Mikel (Udala)	x
Arantza (Eskola)	x	Hiart (Urtxintxa)	x
Oinatze	x	Ainhoa	x

### AKTA

- Sarrera
- Bi hilabete hauetako deskargua eta lehen zirriborroaren aurkezpena.



Egindako lanaren deskargua egiten du Hiartek. Eragile bakoitzaren plana aztertzeaz gain, hainbat kontraste bilera egin ditu lan talde, teknikari eta eragile ezberdinekin. Hauek lirake; Herri identitatekoekin, Ibaiak eta mediak-ekin, Jasangarritasunekoekin, Euskera Planarekin, Parekidetasun planarekin, Alkarri eta Zahartzaro aktibokoekin, Pobrezia eta beharriazkoekin, Auzokorekin eta azkenik, Kukumixokoekin, haurren eta gazteen proposamenak aztertzeko.

Bilera hauetan, plan edo proiektu ezberdinak kontrastatu eta elkarlanerako aukerak aztertu dira. Balorazioa oso positiboa da gehienetan norabidea berdina delako eta puntu askotan elkartzeko direlako proiektuak. Honek etorkizunean planifikatu beharrekoa errazten duela aipatzen du.

Bestetik eragile ezberdinek dituzten planak, proiektuak eta ekintzak aztertu dira ere. Hauek lirake: Guraso elkarteak, Kukumixoa, Udala, Haurreskola, PLH, DBH, HHI, Gaztetxokoa eta Ludoteka. Azterketa honetatik aterako beharreko ondorioak oraindik pendiente daude.

Ondoren zirriborroaren azalpenak ematen ditu. Artxiboak ez duenez oraindik txosten formatua artxiboen arteko harremana eta logika azaltzen du. Proiektuak aukeratzeko irizpideak ere errepasatzen ditu, abenduaren 1ko talde eragilean adostutako irizpideak gogora ekarriz.

Proiektuak azaltzeari ekiten zaio, hauek izanik proiektuak irten diren lehen zalantza eta ekarpenak:

### **Soraluzeko Eskola Bidea:**

Gurasoekin asko landu beharrekoa dela eta proiektuaren ardura beraiek hartzea ona litzakela aipatu du Arantzak.

Elenak dio kontutan izatea guraso batzuk gustora egiten duten ekintza dela haurra eskolara laguntzea.

Kotxea asko pillatzen direla eskolan ere aipatzen du Arantzak.

Oinatze eta Ainhoak diote beraienak oinez joaten direla iada.

### **Metodologian sakonduz:**

- Kezka sortu du proiektuak. Metodologia ikastetxeak berak eta honen gaineratik dauden erakunde eta legeek ezartzen dutela aipatzen du Elenak. Aldiz, hezkuntza ez formalari begirako proiektu bezala interesgarria ikusten da. Dena dela, ondo ikusten da bakoitzaren metodologiak konpartitu eta kohesio bat lortzeko ariketa egitea.

### **Eskola txiki herritarra:**

- Proiektuaren izenarekin zalantza agertu du Mikelek.

#### **Auzoko eskolan/hezkuntzan:**

- Mikelek ez du garbi ikusten HHP an joan behar duen proiektu bat den.

#### **Soraluzen Hazi eta Ikasi:**

- Harrera ona izan du eta beharrezkoa dela esan dute
- Bolondresena ondo baina beste aukera bat litzake unibertsitateko ikasleak gerturatzea proiektura pizgarri ekonomiki batekin.
- DBH espazioa eskeintzeko prest agertu da
- KZ gunea ere aukera ona litzake

#### **Beka sistema:**

- Mikelek azaltzen du lehen pausoak ematen ari direla gai honekin.. DBHko beken irizpideak berplanteatzen ari dira eta honekin batera eskolaz kanpoko jardueretarako bekak aztertzeko asmoa ere badago. Guztia proiektu berdinean sartzea ikusten da.

#### **Hezkuntza Plazara:**

- Lan karga arintze aldera, maiztasuna aztertu eta adostu beharra ikusten du Arantzak

#### **Herri ondarea zabalduz:**

- Harrera ona izan du. Arantza eta Elena landu beharreko gaiak eta adina begiratzeko gelditu dira. Besteok ere begiratzen badugu ondo legoke, batez ere landu beharreko gaien inguruan iritzia emoteko.

#### **Jolas gunek eta parkeak birpentsatzen:**

- Harrera ondu izan du.

#### **Jolasaren eguna/astea:**

- Hezkuntza Plazara proiektuarekin bat egitea proposatu da, egun horretan jolasari tarte bat emanez.
- Naiarak dio aurten kukumixoren eguna/jolasaren eguna antolatzeke asmoa dutela.

#### **Hezkidetzan murgilduz:**

- Elenak dino DBHn planarekin fuerte eta gustora dabiltzala
- Proiektua gehiago zehazte aldera, Hiartek diño topagunera joango dela proiektuarekin eta berain iritzia jasoko dutela

### **Euskara:**

- Euskararen Plan estrategikoko Hezkuntzarekin lotura duten ekintzen jarraipena Euskaratik egitea proposatzen du Mikelek, baina aldi berean ekintza konkretu batzuk HHPko proiektuetan txertatzeko aukera aztertzea aipatzen du, hortarako errepasso bat egingo diogu biok Euskarako lan ildoari.

### **Sorgunea:**

- Garatu gabe dagoen proiektua kanpoko ekarpenak jasotzeko zain dagoelako Hiart.

Behin errepasso hau eginda eta dokumentazioaren azterketa sakonago bat egiteko, hiru asteko epea hartuko dute talde eragileko kideek. Ondoren berriz batzeko erabakia hartzen da, aratusteen hurrengo astean batuko ginake ekarpenak jaso eta zalantzak argitzeko.

- Haur eta gazte, etorkin, ez euskaldun eta adinekoekin egin beharreko bilerak.  
Lehen zirriborro hau egokia ikusten da talde hauekin kontraste saioak egiteko. Beraz talde eragilea berriz batu bitartean talde hauekin saio ezberdinak egingo ditugu.
- Kronograma errepasatu.  
Hurrengo talde eragilea otsailaren 18 -19 bueltan egitea adosten da.
- Norberak lekarkeena

## SORALUZEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

### TALDE ERAGILEA

LEKUA	Udaletxea	DATA	07/03/16
HASIERA ORDUA	10:00	IRAUPENA	120'

### ASISTENTZIA

Naiara (Kukumixo)	x	Nagore (Udala)	
Elena (Istitutua)	x	Mikel (Udala)	x
Arantza (Eskola)	x	Hiart (Urtxintxa)	x
Oinatze	x	Ainhoa	x

### GAI ORDENA

- Sarrera (5')

- Ekarpenen errepassoa (20')

Sormena dela eta, Arantzak aipatzen du beraiek hasi direla sormena lantzeko formakuntza jasotzen.

Hezkidetzarekin ez dugula proiekturik jarriko aipatzen dugu, eragile bakoitzak badituelako bere plan propioak eta herrian ere badelako berdintasun plana. Dena dela, aste santu ondren, bilera bat egitea proposatzen da bakoitzak egiten duenaren berri eman eta ekintzak ez bikoizteko

- Kudeaketarako proposamena (30')

Hezkuntza mahaia, erabakigune beharrean organo kontsultiboa izatea proposatzen du talde eragileak. Horrela jasoko dugu kudeaketa proposamenean.

- Hezkuntza Mahaiko helburuak eta metodologia (30')
- Proiektuaren eta proiektuen izen berriak (25')

Errepassatu egiten dira eta aste beteko epea ematen da ekarpenak egiteko

- Norberak lekarkeena (10')